

Garapenerako
lankidetzaren
eraldaketa
ekologikorako
gida praktikoa

bakea 



Garapenerako
lankidetzaren
eraldaketa
ekologikorako
gida praktikoa

bakeaz
↑

Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren eta Bizkaiko Foru Aldundiaren finantzaketari esker egin ahal izan da gida hau.



Koordinazioa eta idazkuntza: Florent Marcellesi (Bakeaz).
Edizioaren koordinazioa: Bakeaz.

Bakeaz • Arriquirar plaza, 3-1.a esk. • 48008 Bilbao •
Tel.: 94 4790070 • Faxe: 94 4790071 • Helbide elektronikoa:
bakeaz@bakeaz.org • <http://www.bakeaz.org>

Ekolankidetzaren bidez, hots, garapeneko GKEen kideek eta ekologistek eta erakunde publikoek osaturiko iraukordtasunari, ingurumenari eta lankidetzari buruzko gogoetako eta parte hartzeko lantaldearen bidez, honako lagun hauek parte hartu dute gida honetan: Puri Pérez Rojo, Fátima Amezkua Kortadi (Mugarik Gabe); Jaime Bernar (Zabalketa); Jorge Lagos (Paz con Dignidad); Myriam Artola Dendaluce, Sandra Delgado García (Alboan); Aitana Uria Gutiérrez (Unesco Etxea); Verónica Córdoba (Mugarik Gabeko Ingeniaritza); Iker del Río Lahidalga (Bizilur); Mónica Quintela (Mundubat); Christine Wolf, Natalia Rodríguez (Ekologistak Martxan); Iñaki Barcena Hinojal (Ekologistak Martxan eta UPV/EHUren Zientzia Politikoaren Departamentua); Ramón Elosegui (SEO/BirdLife); Mari Luz Iñarra Palomino; Ruth Vicente, Miren Saiz, Monika Sojo (Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia); Alazne Camiña Izkara (Bizkaiko Foru Aldundia); Josu Oskoz (Arabako Foru Aldundia); Irene Molero Gurrutxaga (Gipuzkoako Foru Aldundia); Igone Palacios, Laura Sánchez (Garapen Iraunkorra eta Ingurumen Hezkuntzari buruzko UPV/EHUko UNESCO Katedra); Juanma Balerdi (Euskal Fonda); Unai Villena (Hegoa Institutua).

Gida honetan adierazitako iritziak ez datoz nahitaez bat gidaren elaborazioan parte hartu duten pertsona eta erakundeekin.

Edizioa: Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia, 2012.
Diseinua eta maketazioa: Voice Comunicación & Diseño.
Inprimaketa: Gráficas Ingugom.

Onespena-Ez-komertziala-Partekatzea, berdin 3.0

Sorturiko materiala hirugarrenek banatu, kopiatu eta erakutsi dezakete kredituetan, autoretza eta jatorria erakusten bada. Ezin da merkataritza-mozkinik lortu eta bideraturiko lanek jatorrizko lanaren lizentzia-termino beren pean egon behar dute.

Lege-gordailua: BI-637-2012

Argitalpen hau inprimatzeko erabilitako papera % 100 birziklatua eta klororik gabea da.

Hitzaurrea

Ingurumenari buruzko nazioarteko lehen konferentziatik berrogei urtera eta Rio de Janeiroko Lurraren Goi Bileratik hogeitun urtera, nazioarteko agenden helburu bihurtu da garapen iraunkorra. Teorian gure politika guztietan txertatu behar bada ere, adierazi beharra dago garapenerako lankidetzak oso neurri txikian eta sistematizatu gabe heldu diola kontzeptu horri.

Dena dela, kontzeptu hori txertatzea Eusko Jaurlaritzaren konpromisoa da, eta premiazkoa gizateriarentzat: ingurumen- eta klima-krisialdiei aurre egiteko, gizarte- eta ingurumen-arloan mundu bidezkoago bat eraikitzeko tresna izango den eta planetaren muga ekologikoak errespetatuko dituen garapenerako lankidetzak bat sortu behar dugu.

Iraunkortasuna garapenerako lankidetzan txertatzeko gida hau erronka horiei erantzuteko argitaratu da. Gidaren bidez, eguneroko jardunean era sektorial zein zeharkakoan jarduteko aukera emango duten tresna praktikoak eskaini nahi zaizkie garapenerako lankidetzari eta ingurumenari lotutako pertsonari eta erakundeari. Gainera, ikuspegi holistiko batean oinarrituta dago, garapenerako lankidetzaren alderdi guztiak hartzen baititu kontuan: legezko esparrua, proiektuen

zikloa, eragin politikoa, barne-kultura eta barne-politikak, eta garapenerako hezkuntza. Garapenerako lankidetzaren hainbat jardun-arlotan diharduten erakunde publiko eta pribatuak eta sektore ekologisten adibide eta praktika on ugari biltzen ditu (Iparraldekoak zein Hegoaldekoak).


Azkenik, Bakeaz erakundeak eta material hau lantzen esku hartu duten Euskadiko GKE eta pertsona guztiek egindako lana eskertu nahi dut. Zalantzarik gabe, tailer presentzial ugari eta *online* lanari esker, parte-hartze handia izan du ezaugarri bereizgarri gida hau sortzeko eta idazteko prozesuak. Halaber, genero-ikuspegia zeharka txertatu izana azpimarratu nahi nuke. Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziarentzat, ikuspegi hori, ingurumenarena bezalaxe, ezinbesteko baldintza da Iparraldeko eta Hegoaldeko garapen-prozesu orotan.

Irakurketa emankorra izatea opa dizuet, eta zuen eskura jarri dugun tresna hau baliagarria izatea espero dugu.

Marta Ares

Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako zuzendaria

aurkibidea



1

Gida honen
helburuak eta
oinarri teorikoak 11

2

Lege-esparrua 17

3

Erakunde-
politikak eta
barne-kultura 27

4

Eragin politikoa 33

5

Hezkuntza eta
prestakuntza 43

6

Esku hartzeko
estrategiak eta
proiektu-zikloak 49


7

Glosarioa 69

koadroak eta irudiak

1. koadroa	ERREMINTA KUTXA: Ingurumenari buruzko lege-akordio eta gizarte-deklarazio nagusiak	20
2. koadroa	XEHETASUNEZ: Ingurumena Espainiako eta EAeko legedian eta gidaplanetan	21
3. koadroa	BA AL DAKIZU zeintzuk diren negutegi-efektuko gasen emisioak murrizteko helburuak honako hauen arabera?	22
4. koadroa	JARDUNBIDE EGOKIAK: Nazioarteko lankidetzazko Suitsako ingurumeneko araudian	23
5. koadroa	JARDUNBIDE EGOKIAK: Naturaren eskubideak Hegoan	23
6. koadroa	ZEREGINEN ZERRENTA: Lege-esparrua	24
7. koadroa	ERREMINTA KUTXA: Ingurumen-kudeaketarako tresnak	29
8. koadroa	JARDUNBIDE EGOKIAK: Erakundeetako ingurumen-kudeaketaren adibideak	30
9. koadroa	ZEREGINEN ZERRENTA: Erakunde-politikak eta barne-kultura	31
10. koadroa	XEHETASUNEZ: Politiken koherentzia eta antilankidetzazko	35
11. koadroa	BA AL DAKIZU nondik datorren 0,7a?	36
12. koadroa	XEHETASUNEZ: Ingurumenaren Munduko Erakundea	37
13. koadroa	JARDUNBIDE EGOKIAK: Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak eraginari aplikatuak	38
14. koadroa	JARDUNBIDE EGOKIAK: Paradigma eta produkzio-eredua aldatzeko aliantzak	39
15. koadroa	ZEREGINEN ZERRENTA: Eragin politikoa	40
16. koadroa	JARDUNBIDE EGOKIAK: Material didaktikoa eskola-jangela ekologikoetarako	45
17. koadroa	BA AL DAKIZU Etorkizun Iraunkorrerako Hezkuntzaren Hamarkadan gaudela?	46

18. koadroa	JARDUNBIDE EGOKIAK: Kontsumo kontziente eta arduratsua izateko sentsibilizazioa	46
19. koadroa	ZEREGINEN ZERRENTA: Hezkuntza eta prestakuntza	47
20. koadroa	BA AL DAKIZU nola identifikatzen duen Espainiako lankidetzak ingurumen-garapenerako Laguntza Ofiziala?	51
21. koadroa	JARDUNBIDE EGOKIAK: Ingurumen-lankidetzak tekniko deszentralizatua	52
22. koadroa	XEHETASUNEZ: Garapenerako laguntza eskatzeari buruzko dekretuak, baremazioak eta inprimakiak berriz definitu behar dira	53
23. koadroa	XEHETASUNEZ: Bizitza dago esparru logikotik haratago	55
24. koadroa	ERREMINTA KUTXA: Iraunkortasuna eta genero-jarraibideak	56
25. koadroa	XEHETASUNEZ: Beste lankidetzak-fluxuak: Hego-Ipar, Hego-Hego eta Ipar-Ipar	57
26. koadroa	XEHETASUNEZ: CO ₂ aren merkatu boluntarioetan parte hartzeko irizpideak	58
27. koadroa	ERREMINTA KUTXA: Ingurumen-inpaktuaren aurretiazko ebaluazioa	63
28. koadroa	ERREMINTA KUTXA: Giza garapeneraren indizea osatzea iraunkortasunaren ikuspegitik begiratuta	64
29. koadroa	JARDUNBIDE EGOKIAK: Ondo bizitze iraunkorraren adierazlea	66
30. koadroa	ZEREGINEN ZERRENTA: Proiektuen zikloa	67
1. irudia	Kudeaketa-politika dimentsio ekologikoaren integrazioaren eta giza ongizatearen arteko harremana	12
2. irudia	Iraunkortasunaren kontzeptuzko esparrua	14
3. irudia	Uzkurtzen eta konbergentzian dauden herrialdeak giza garapeneraren indizearen eta oinatz ekologikoaren arabera	65



1

Gida honen helburuak eta oinarri teorikoak

Helburu orokorra

Helburu espezifikoa

Nori dago zuzenduta gida hau?

Zer da iraunkortasuna?

Erreferentziako testuak

Nola erabili behar den gida hau

Helburu orokorra

Gida honen helburu orokorra **krisi ekologikoari* aurre egitea da garapenerako lankidetzaren bidez.**

Helburu hori buruan, *Garapenerako lankidetzaren eraldaketa ekologikorako gida praktikoak* abiapuntutzat hartzen du **kontrakzio-eta konbergentzia-eredu bat**, eta horren arabera herrialde guztiek erantzukizun erkide baina bereziak* dituzte eta ikuspegi erkidea ere partekatzen dute: materialen eta energiaren ekoizpena eta kontsumoa biosferaren karga-gaitasunera* mugatuta geratzea eta natura-baliabideak bidezko moduan per capita banatzea.

Hainbat aldaketa eragiten ditu horrek guztiak:

- Ipar globalerako,* aldaketa estruktural eta soziala kontsumo/produktzio txikiago eta hobeago baterantz beharrezko baldintza gisa —ez, ordea, nahikoa— modu solidario eta iraunkorrean laguntzeko Hegoko herrialdeei eta haien biztanleria behartsuenei.
- Hego globalerako,* bilakaera sozioekologikoki eraginkorra, okerreko garapenaren arkitik igaro gabe, baina betiere hazkunderako eskubidearekin, posiblea eta nahigarria den leku guztietan.

Helburu espezifikoak

Gida honen helburu espezifikoak lan-esparru bat eta hainbat erreminta proposatzea da, **iraunkortasuna garapenerako lankidetzan sartzeko aukera sistematizatu eta praktikan gauzatzeko**, honako alderdi hauek kontuan izanda betiere:

- Ingurumenaren eta honako elementu hauetako bakoitzaren arteko interakzioak: pobrezia, generoa eta giza eskubideak.
- Ekosistemen garrantzia ongizatean eta giza garapenean epe laburrera eta luzera (ikus 1. irudia).

Gidak **ikuspegi integral** batetik ekiten dio helburu espezifiko horri, hainbat jardun-maila osagarri eta elkarren mendeko konbinatzen dituela: legezkoa, politikoak, teknikoak, kulturala eta antolamenduzkoa.

Krisi ekologikoaren* argitan, honako termino hauetan ulertzen du gida honek nazioarteko lankidetzaz:

- Bizirauteko premia da Iparreko eta Hegoko herrialdeentzat, baita betebeharrak ere.
- Erresilientziarako* lagungarri den tresna da.
- Jardunbide egoki sozioekologikoen haztegia da, erreproduzitu eta beste esparru batzuetan orokortzeko betiere.
- Gizarte- eta ingurumen-justiziarako* eraldaketa sozial eta politikoko erreminta bat da, Iparrean eta Hegoan, gaurko eta biharko.

1. irudia

Kudeaketa-politika-eremu ekologikoaren integrazioaren eta giza ongizatearen arteko harremana



Iturria: Milurtekoko Ekosistemen Ebaluazioa, *Milurtekoko Ekosistemen Ebaluazioa. Laburpen-txostena*, Washington, D. C., Island Press, 2005.

* Izartxo batekin adierazitako termino teknikoak azken glosarioan daude definituta.

Nori dago zuzen- duta gida hau?

Iraunkortasuna nazioarteko lankidetzan, eta alde-
rantziz, behar bezala integratzea osorik eta behar
bezala egingo da honako jardun-esparru hauetan
lan egiten duten pertsonen eta erakundeen arteko
lankidetzaren bidez:

- **Garapenerako lankidetz**a egiten duten agente publiko edo pribatuak: administrazioak, garape-
neko GKE, unibertsitateak, prestakuntza- edo
ikerketa-zentroak.
- **Iraunkortasunaren eta ingurumenaren sek-
to**rean lan egiten duten agente publiko edo
pribatuak, elkarte kontserbazionistak eta mugimendu ekologistak.



Elkarte kontserbazionista edota ekologista bat naiz. Nazioarteko lankidetza egin al dezaket?

SEO-BirdLife ornitologiako espainiar elkarte da. Elkartearen estatutuetan jasotako helburuetako bat «garapenerako nazioarteko lankidetzarekin loturiko jarduerak egitea da, garapen-bidean dauden herrialdetako biodibertsitatearen kontserbaziorako eta erabilera iraunkorrerako funtsezko motor gisa». Bere nazioarteko lana Milurtekoko Helburuetan eta Milurtekoko Ekosistemen Ebaluazioan kokatzen da, eta lankidetzan aritzen da AECID (Garapenerako Nazioarteko Lankidetzaren Espainiako Agentzia) erakundearekin.

Ecologistas en Acción elkarte kide da **Ekologistak Martxan** erakundea, eta ekologismo soziala defendatzen du Euskal Herrian. Garapena eta Lankidetz

Sustatzeko Funtzaren (GLSF) bidez, zor ekologikoaren* kontzeptua garatzen du, ikerketa teorikoko lanekin, argitalpenekin, sentsibilizazio- eta salaketakanpainekin Iparrean eta Iparreko eta Hegoko agenteekin sareak eraikita.

Zer da iraunkortasuna?

Azpisistema ireki gisa ulertzen du ekonomiak iraunkortasuna, goragoko beste sistema batekin, gizartearekin, elkarreragiten duena, eta horrek, halaber, bera biltzen duen beste sistema batekin eragiten du: biosfera. Iraunkortasunaren bidetik aurrera egiten duen erkidego edo elkarte baten helburu nagusia garatzeko dauzkan kapitalak behar bezala kudeatzea da, eta bere jarduerak planetaren muga biofisikoen barruan kokatzea ekitate-irizpideei jarraiki. Horrebestez, nazioarteko lankidetzaren unero egokitu beharko da ekosistemaren birsorkuntza-eta asimilazio-gaitasunetara* (ikus 2. irudia).

2. irudia

Iraunkortasunaren kontzeptuzko esparrua



Iturria: Milurtekoko Ekosistemen Ebaluazioa, *Milurtekoko Ekosistemen Ebaluazioa. Laborpen-txostena*, Washington, D. C., Island Press, 2005.

Erreferentziako testuak

- GONZÁLEZ, José A., Carlos MONTES eta Ignacio SANTOS (2007): «Capital natural y desarrollo: por una base ecológica en el análisis de las relaciones Norte-Sur», *Papeles de Relaciones Ecosociales y Cambio Global*, 100, 63-77.
- MARCELLESI, Florent (2012): *Cooperación al posdesarrollo. Bases teóricas para la transformación ecológica de la cooperación al desarrollo*, Bilbao, Bakeaz.
- MARCELLESI, Florent, eta Igone PALACIOS (2008): *Integración de consideraciones de sostenibilidad en la cooperación para el desarrollo*, Bilbao, Bakeaz (Cuadernos Bakeaz, 88).
- MILURTEKOKO EKOSISTEMEN EBALUAZIOA (2005): *Milurtekoko Ekosistemen Ebaluazioa. Laborpen txostena*, Washington, D. C., Island Press.
- WWF (2006, 2008, 2010): Planeta bizirik txostenak.

Nola erabili behar den gida hau

Garapenerako lankidetzaren eraldaketa ekologiko-
rako gida praktikoaren kapitulu bakoitzak honako
atal hauek biltzen ditu:

Azalpen-testu bat.



«**Xehetasunez**» **koadro bat**: kontzeptu
edo ideia bat sakontzea ahalbidetzen du.



«**Erreminta kutxa**» **koadro bat**: tresna
praktikoak planteatzen ditu egunerakoan
gida honen ideiak aplikatzeko.



«**Ba al dakizu...?**» **koadro bat**: infor-
mazio interesgarria erakusten du alderdi
jakinen bat argitzeko.




«**Jardunbide egokiak**» **koadro bat**:
eredutzat har daitezkeen esperientziak
aurkezten ditu.



«**Zereginen zerrenda**» **koadro bat**:
kapitulu bakoitzaren laburpen praktikoaren
lanak betetzen ditu, erakunde edo langile
tekniko bakoitzak erraz eta bizkor berrikusi
dezan nola jardun dezakeen. Bi zerrenda
mota daude:

- GKEa naiz. Zer egin dezaket?
- Administrazio publikoa naiz. Zer egin dezaket?





2

Lege-esparrua

1992ko **Ingurumenari eta Garapenari buruzko Rioko Deklarazioaren** arabera, munduko aliantza berri eta ekitatibo bat eraiki nahi da, non bakea, garapena eta ingurumenaren babesa banaezinak eta elkarren mendeko izango diren.

Definizio horren inguruan, nazioarteko, Europako eta estatuko testu ugari daude, iraunkortasunaren eta garapenerako lankidetzaren alorrean lan egiten duten erakundeen lana babesten dutenak. Dokumentu horiek funtsezko oinarria ekartzen dute honako agente hauentzako:

- Botere publikoak eta erakunde finantzatzaileak bere legeak, gidaplanak, herrialde-estrategiak, programak edo hitzarmenak definitzeko edo hobetzeko garaian.
- GKEak beren garapen- edo hezkuntza-proiektuak identifikatzeko, formultzeko edo justifikatzeko garaian.

Hari gidatzaileei dagokienez, **mundu osoan indarrean daude ingurumenari buruzko 250 akordio aldeaniztun** baino gehiago (ikus 1. koadroa). Planteatzen dute, neurri handiagoan edo txikiagoan, ingurumen-erronkek nazioarteko lankidetzari alde biko, aldeaniztun eta dezentralizatu al bait eraginkor eta zabalena behar dutela, askotariko agenteekin: estatuak, gobernu arteko erakundeak, tokiko agintariak eta gobernu kanpoko sektorea. Ipar-Hego nazioarteko lankidetzari azpimarratzen dute, dela zientifikoa edo teknikoa, garapen-proiektuen, ikerketa zientifikoaren, baliabide finantzarioen banaketaren, sendotze instituzionalaren eta adituen trukearen erakundeen eta herritarren, Hegoakoak zein Iparrekoak direla ere, hezkuntza-, prestakuntza-, gaituntza- eta sentsibilizazio-programen aplikazio partizipatiboaren bidez.

Iraunkortasun-ikuspegiko garapenerako lankidetzaren erremintei dagokienez, honako hauek dira azpimarratzekoak:

- Nazio Batuen **Milurtekoko Helburuak**, 7. helburuaren bidez («Ingurumen-iraunkortasuna bermatzea») argi erakutsita erakundearen konpromisoa garapen iraunkorra gaineratzeko politika eta programa nazionaletan, ingurumenaren baliabideen galera alderantzizatzeko —lehenik, biodibertsitatearena—, 2015erako erdira murrizteko edateko ura eta saneamenduko oinarritzko zerbitzuak modu iraunkorrean baliabide dezaketen pertsonen ehuneko

erdira murrizteko, eta 2020rako gutxienez txabola eta antzeko zuloetan bizi diren 100 milioi biztanleen bizitza hobetzeko.

- **Garapenerako Nazio Batuen Programaren (GNBP) Garapenari buruzko Txostenak**, batez ere, *Klima-aldaketaren aurkako borroka: elkartasuna zatituriko mundu baten aurrean* (2007-2008), edo ELGAREN «Klima-aldaketarako egokitzapenaren integrazioari buruzko politikako deklarazioa, garapenerako lankidetzan» (2010).
- **Herrialde independenteetako herri indigena eta tribalei buruzko hitzarmena** —edo 169. Hitzarmena—, Lanaren Nazioarteko Erakundearena, herri horien eskubideak ezartzen dituena lurra, lurraldeak eta natura-baliabideak balitzearekiko eta haien jabetzari dagokionez (ikus 7. eta 13.-19. artikulua), eta **Herri indigenei buruzko Nazio Batuen deklarazioa** (2007), zehazten duena herri indigenek eskubidea dutela jabetza tradizionalaren arabera dauzkaten lur, lurralde eta baliabideak eduki, erabili, garatu eta kontrolatzeko (26. art.) eta ingurumena zaindu eta babesteko, baita beren lur edo lurralde edo baliabideen ekoizpen-ahalmena ere (29. art.).

Alde batetik, lege-testu horiek guztiek zuzeneko eragina dute **lege nazionaletan** (Espainiaren kasuan, esaterako), eta hori horrela, edozein autonomia-erkidego edo toki-agintaritzaren iraunkortasuneko eta garapenerako lankidetzako politikak zuzenean edo zeharka aplikatuko diren arau-jarribide nagusiak ezartzen dituzte. Esaterako, Europar Batasunak¹ helburutzat hartzen du garapen-bidean dauden herrialdeei laguntza ingurumenaren buruzko akordio aldeaniztunak aplikatzeko eta pobrezia-egoeran bizi diren pertsonen mesederako ingurumena-ekin loturiko ekimenak sustatzeko (ikus 2. koadroa).

Bestalde, akordio horiek, ingurumen-problematikaren alderdi oso zabala betetzen dutenek, batez ere tresna baliotsuak dira **lege-oinarri bat emateko lankidetzaren erakundeek ekologiararen alorrean izaten dituzten esku-hartzeak**. Lankidetzaren agenteen eta ambientalisten esku uzten dituzte printzipio teoriko, klausula juridiko, helburu zehatz, erreminta praktikoa eta bitarteko finantzario batzuk (ikus 3. koadroa).

Horrenbestez, lege-esparru hori ezagutzea oinarritzkoa da garapenerako lankidetzaren eraldaketa ekologikoaren esparruan jarduteko, honako hauek ahalbidetzen baititu:

1. Kontseiluaren eta Kontseiluaren barruan bilduriko Estatu kidetaeko Gobernuen Ordezkarien, Europako Parlamentuaren eta Europar Batasunaren garapen-politikari buruzko Batzordearen deklarazio bateratua, «Garapenari buruzko europar adostasuna» (2006).

- GKEei, beren esku-hartze proiektuak identifikatu eta justifikatzea, eta administrazio publikoei, beren legeak eta nazioarteko lankidetzaren planak lantzea.
- Eragin politikoari gagozkiola, lege ez-betetzeen behar bezalako zaintza-, kontrol-, salaketa- eta zehazpen-lana egitea, baita proposamenak positiboan formulatzea ere araudia eta dagokion aplikazioa hobetzeko.

Lege-esparrua ondo ezagutzen dela bermatzeko, garrantzitsua da **giza baliabide eta baliabide material egokituak** izatea, eta hori horrela, honako ekintza hauek burutzea gomendatzen da:

- Ahal den neurrian egitura txikietan eta nahitaez administrazio publikoetan eta GKE handietan, ingurumen-arloan tokian tokiko eta nazioarteko lege-esparrua ezagutzen duten giza-baliabideak baliatzea.
- Erakunde txikietako baliabide-falta gainditzeko, GKEen arteko datu-base partekatuak martxan jartzea, haien eskueran prestaturiko pertsonak eta haiek orientatu eta aholkatzeko baliabide erabilgarriak jarrita.
- Material didaktikoa eta praktikoa sortzea ingurumen-erronkei eta loturiko lege-esparruari buruz, baita nazioarteko lankidetzarekin duen harremanari buruz ere, eta bermatzea eskuragarri egon dadila erakundeetan beretan, baliabide espezializatuen zentroetan edo sareko lanaren bidez, edozein lankidetzaren agenteen kontsulta dezan.

Garrantzitsua da azpimarratzea, esparru juridiko klasikoaz gain eta lege-indarrak ez badute ere, badirela **gizarte-mugimenduaren hainbat deklarazio** gizarte-zibilaren lortutako adostasun zabalen erakusgarri direnak, ingurumenaren arloari gagozkiola (ikus 1. koadroa). Nagusiki maniobra-marjina handiagoa duten funts propioak dauzkaten proiektuetarako ere —nahiz eta gomendagarria den kanpo-finantzaketa publikoa daukaten proiektuekin ere erabiltzea— balio erantsi handiko beste oinarri bat dira estrategiak lantzeko eta eraldaketa sozioekologikorako ekintza praktikoa burutzeko.

Bigarrenik, lege-esparru indartsu bat **garapenerako lankidetzaren ingurumen-legerian behar bezala integratzea** oinarritzen da. Politiken koherentzia handiagoa lortzea eta lankidetzaren eta ingurumenaren agenteen arteko lankidetzaren bide berriak irekitzea ahalbidetzen du horrek, baita finantzaketa-bideak ere proiektua finkatzeko mundo iraunkorrako eta ekitatiboago baten

alde (ikus 4. koadroa). Ingurumen-langileak nazioarteko lankidetzaren prestakuntza izatea ere oso gomendagarria da.

Lege-esparrua etengabeko bilakaeran dago. Dinamika horren ildo beretik, badira zenbait nobedade juridiko ekintza-ikuspegi berriak zabaltzen dituztenak (ikus 5. koadroa) edo hutsuneak, hala nola petrolioaren sabaia* edo ingurumen-errefuxiatuak,* arautolamenduan apurka gaineratu beharrekoak. Ildo horretan, eragin politikoari buruzko lana (ikus 4. kapitulua, «Eragin politiko»).

Azkenik, oso interesgarria da **ingurumen-ebaluazio estrategikoa (IEE)**; garapenerako lankidetzari lotutako ekimenak (hala nola politikak, planak eta programak) makro-mailan ebaluatzeko aukera ematen duen tresna da. IEEa, halaber, erabakiak hartzean iraunkortasuna eta ingurumen-integrazioa sustatzeko prozesu bat dela esan daiteke. Nazioartean, ahalegin handia egiten ari da IEEa garapenerako lankidetzaren aplikadain, ELGAren Garapenerako Laguntza Batzordean horretarako sortutako lan-taldearen bidez batez ere (www.seataskteam.net). Talde horrek *La Evaluación Ambiental Estratégica. Una guía de buenas prácticas en la cooperación para el desarrollo* (ELGA, 2007) argitalpena landu du.

1. koadroa

Erreminta kutxa



Ingurumenari buruzko lege-akordio eta gizarte-deklarazio nagusiak

Gaur egun ingurumenari buruzko 250 akordio aldean nitzun baino gehiago daude indarrean, eta honako hauek dira nabarmentzekoak:

- Hezeguneei buruzko konbentzioa (1971), horien kontserbazioaren eta erabilera arrazionalaren alde.
- Basoko fauna eta florako espezie mehatxatuen nazioarteko merkataritzari buruzko konbentzioa (CITES, 1975).
- Ozono-geruza argaltzea eragiten duten gasen produkzioa murrizteko Montrealeko protokoloa (1987).
- Nazioartean mugaz gaindiko mugimenduak kontrolatzeari eta hondakin arriskutsuak ezabatzeari buruzko Basileako hitzarmena (1989).
- Klima-aldaketari buruzko Nazio Batuen esparru-konbentzioa (1992).
- Dibertsitate biologikoari buruzko hitzarmena (1992).
- Lehorte larriaren edota desertifikatzearen eraginpeko herrialdeetan —bereziki, Afrikakoetan— desertifikatzearen aurka borrokatzeko Nazio Batuen konbentzioa (1994).
- Planetan berotegi-efektua duten gasak* murrizteko Kiotoko protokoloa (1997).
- Informazioa eskuratzeari, erabakiak hartzerakoan jendearen parte-hartzeari eta ingurumenaren arloan justizia baliatzeari buruzko Aarhus-eko hitzarmena (1998), Nazio Batuen Europarako Batzorde Ekonomikoarena.
- Aldatutako organismo biziei buruzko bioteknologia-segurtasunerako protokoloa (2003).
- Nazioarteko merkataritzan balia daitezkeen plagizidei eta produktu kimiko arriskutsuei buruzko Rotterdameko hitzarmena (2004).

Zenbait akordio gizarte-mugimenduek sustatzen dituzte:

- Transgenikorik eta agrotokorik gabeko munduaren aldeko Caracaseko deklarazioa (2006).
- Elikadura-subiranotasunari buruzko Nyéléniko deklarazioa (2007).
- Klima-aldaketari eta Ama Lurraren Eskubideei buruzko Herrien akordioa (Cochabamba, 2010).
- Nekazaritzarako eta iraunkortasunerako arriskutsuak izan daitezkeen landareak genetikoki aldatzean bioteknologiak dituen aplikazioei buruzko gizarte zibileko pertsona ospetsuen eta erakundearen deklarazioa (2010).
- Meatzaritzari, Klima Aldaketari eta Ongi Bizitzeari buruzko Limako deklarazioa (2011), Herri Indigenen Foroan hartutakoa.

2. koadroa

Xehetasunez



Ingurumena Espainiako eta EAeko legedian eta gidaplanetan

Espainian

- **Garapenerako Nazioarteko Lankidetzari buruzko Legeak** (1998) adierazten duenez, Espainiako lankidetzak «ingurumenaren iraunkortasuna eta biziberritzea [...] zaintzen duten garapen-prozesuak sustatuko ditu» (1. artikulua), eta «ingurumena babesteko eta haren kalitatea hobetzeko eta biodibertsitatearen kontserbazio arrazionala nahiz erabilera berriztagarria eta iraunkorra gauzatzeko» jomuga du (7.e artikulua).
- **Espainiak ingurumenean gauzatu beharreko lankidetzaren Estrategiak** ondare erkide unibertsal gisa hartzen ditu bere gain ingurumenari buruzko akordio aldeaniztunak. Esparru horretan, historikoki marjinatuta egon diren tokibiztanleriarentzako garapen iraunkorreko bi programa abiarazi ditu: Araucaria, bereziki Latinoamerikan, eta Azahar, Mediterraneoko arroan.
- **Espainiar Lankidetzaren 2009-2012ko Gidaplanean** adierazten denez, ingurumenaren ikuskerak gainditu egiten du iraunkortasuna hiru zutaberen (ekonomikoa, soziala eta ingurumen-alarrekoa) arteko orekatzat hartzen duen ikuspegia; horretaz gain, ikuskera hori garapenaren oinarri dela aitortzen du Plan Zuzentzaileak, eta honenbestez, lehentasun horizontala eta sektoriala ere badela.
- **Ingurumenaren eta klima-aldaketaren sektorean jarduteko Plan** bat badago, naturaren mugak errespetatzeaz gain, iraunkorrak izanik

biodibertsitateari, gizarte-justiziarri eta ekitateari dagokienez indize altuak eta karbono dioxidoko emisio baxuak dituzten ekonomietarako iragaitea bultzatzen duen garapenaren paradigma berri bat sustatzeko xedez. Plan horren ildo estrategikoak honako hauek dira: batetik, klima-aldaketaren aurkako borroka, bestetik, ekosistemen kontserbazioa, hirugarrenik, ingurumen-zerbitzuen balio-espina, laugarrenik, oinarriko bizigarritasuna, bosgarrenik, AECIDen erakunde-indartzea, eta azkenik, ingurumenaren zeharkakotasuna haren ekintza guztietan.

Euskal Autonomia Erkidegoan

- **Garapenerako Lankidetzari buruzko Euskal Autonomia Erkidegoko Legean** (2007) ingurumena babesteko nazioarteko akordioak betetzeko konpromisoa hartzean da, eta orobat, nazioarteko lankidetzaren alorrean «giza garapen iraunkorrean» oinarrituriko politika aktiboak diseinatzea proposatzen da.
- **Garapenerako Lankidetzaren 2008-2011ko Plan Estrategiko eta Zuzentzaileak** Milurteko Garapen Helburuak hartzen ditu erreferentzia gisa, bereziki nabarmentzen du klima-aldaketa eta zor ekologikoaren* kontzeptuan oinarritzen da, herrialde pobretuen alde. Iraunkortasun ekologikoa zeharkako ildo bat da, baina alor sektorialaren mailatik ateratzen du onura.

3. koadroa

Ba al dakizu...



... zeintzuk diren berotegi-efektuko gasen* emisioak murrizteko helburuak honako hauen arabera?

Kiotoko Protokoloa

Munduan: a) 1990eko maila % 5,2 murriztea 2008-2012 aldian; b) % 25-40ko murriztapena herrialde industrializatueterako, hots, batez besteko tenperatura gutxienez 2 gradu igotzea, maila industriaurrekoekin alderatuz (Cancun, 2010).

Europan: 1990eko maila % 8 murriztea 2012an eta % 20 2020an.

Espanian: 1990eko maila % 15 murriztea 2012an.^a

Gizarte-mugimenduak

Munduan: Iparreko herrialdeek 1990eko maila % 50 murriztea 2017an, karbono-merkatuak horren barnean hartu gabe (Cochabambako Herrien 2010eko Akordioa).

Europan: berotegi-efektuko gasak % 30 murriztea 2020an (Greenpeace eta WWF).

Espanian: berotegi-efektuko gasak % 40-45 murriztea 2020an (Ekologistak Martxan, Lurraren Lagunak).

Helburu horiekin loturiko finantza-konpromisoak

- 2010-2012: 30.000 milioi dolarreko abiatze-funtsa herrialde industrializatueterako, garapen-bidean dauden herrialdeetan klima-aldaketari aurre egiteko.
- Epe luzean: Urteko 100.000 milioi dolarreko Funts Berdea 2020an, Klima-aldaketari buruzko Nazio Batuen Esparru Konbentzioaren agintaritzaren pean, Munduko bankuarekin koordinaturik.
- Urteko beste finantzamendu bat eskatzen da, Garapenerako Laguntza Ofizialaren osagarria eta iturri publikokoa, Iparreko herrialdeen BPGaren % 6 gutxienez, Hegoko herrialdeetan klima-aldaketari heltzeko.

a. Espainian badago berotegi-efektuko gasak* emititzeko eskubideak Esleitzeko Plan Nazional bat sektore ekonomiko jakin batzuetarako. Hala eta guztiz ere, ez dago autonomia-erkidegoen arteko esleipen-planik. Esate baterako, 2012an berotegi-efektuko gasen emisioak % 14 baino gehiago ez areagotzeko borondatezko konpromisoa hartu zuen EAEk, 1990eko mailekin alderatuz.

4. koadroa

Jardunbide egokiak



Nazioarteko lankidetzaren Suitsako ingurumeneko araudian

Suitzan, ingurumena babesteari buruzko lege federalaren 531. artikuluan —«Ingurumena babestearen aldeko nazioarteko lankidetzaren deritzon» ezartzen da Helvetiar Konfederakundeak urte anitzeko kredituak eman ditzakeela honako ekintza hauek gauzatzeko:

- Ingurumena babesteko nazioarteko erakundeak edota programak diruz laguntzea.
- Ingurumenaren aldeko nazioarteko konbentzioen abiaraztea finantzatzea.
- Garapen-bidean eta iragaitze-prozesuan dauden herrialdeei ingurumenaren aldeko nazioarteko konbentzioak ezartzen laguntzea.

5. koadroa

Jardunbide egokiak



Naturaren eskubideak Hegoan

Ekuatorreko Errepublikaren Konstituzioak —2008an onetsitakoak—, atarikoan honako hau sortzeko erabakia jasotzen du: «herritarrak elkarrekin bizitzeko modu berri bat, dibertsitatean eta naturarekiko harmonian oinarritua, ongi bizitzea lortzeko, hots, *sumak kawsay* deritzona».* 275. artikulua arabera, Ekuadorren garapen-eredua zuzentzen du *sumak kawsay* deritzonak, eta horretaz gain, Ekuadorren sistema ekonomiko, politiko, soziokultural eta ingurumenekoak bermatu behar du *sumak kawsay-k*. Halaber, zazpigarren kapituluaren (71.-74. artikulua) «naturaren eskubideak» planteatzen ditu, honako hau adieraziz: «natura edo Pacha Mama deritzonarekin ugaltzen eta gauzatzen da bizitza, eta horrenbestez, bere existentzia erabat errespetatzeko eskubidea dauka, baita bere bizi-zikloei, egiturari,

egitekoei eta eboluzio-prozesuei eusteari eta horiek biziberritzeari dagokionez ere».

Printzipio horiek aplikatuz, **Yasuní ITT ekimena** dugu; proposamen horren bitartez, Ekuadorreko estatuak konpromiso bat hartu zuen, Yasuní Parke Nazionalerako erreserba ekologikoan 856 milioi inguru petrolio-upel modu mugagabeaz lurpean uztekoa, hain zuzen ere. 407 milioi tona metriko karbono dioxido atmosferara emititzea galaraziko luke horrek, baliabide horien ustiapenagatik jasoko lituzkeen etekinen % 50aren baliokide litzatekeen konpentsazio ekonomiko baten truke. Informazio gehiago izateko: <<http://yasuni-itt.gob.ec>>.

6. koadroa

Zereginen zerrenda



Lege-esparrua


Garapeneko GKEa edo bestelako lankidetzagentea naiz. Zer egin dezaket?

- Nire erakundearen edota nire inguruko GKEen sarearen bitartez sartu ingurumenaren alorrean tokiko eta nazioarteko lege-esparrua ezagutzen duten giza baliabideetan.
- Ingurumen-araudiari buruzko material egokituak eta didaktikoak lortu.
- Lege-esparru hori esku hartzeko nire estrategiak eta proiektuak identifikatzeko eta justifikatzeko erabili.
- Ingurumen-alarreko ez-betetze legalen zaintzarako, kontrolerako, salaketarako eta zehapenerako lege-tresnak ezagutu eta baliatu.
- Legeak eta planak sortzeko eta horiei jarraipena egiteko partaidetza-tresnak ezagutu eta baliatu, esate baterako, Lankidetzaren Kontseiluaren edota GKEen Koordinakundearen bitartez.

Administrazio publikoa edo bestelako erakunde finantzatzailea naiz. Zer egin dezaket?

- Ingurumen-alarreko nazioarteko lege-esparrua erabili nazioarteko lankidetzarako nire araudia eta estrategia zehazteko.
- Iraunkortasuna modu sektorial eta horizontalean txertatu garapenerako lankidetzari buruzko araudian eta planetan.
- Ingurumen-alarreko lege-esparru jakin bat sustatu, zehazki, garapenetako lankidetzaren ez ezik Hegoko herrialdeetako garapen-agenteen esku-hartzeak ere kontuan hartzen dituenak.
- Nire erakundeko ingurumen-zerbitzuekin eta bestelakoekin harremanetan jarri eta lan egin.
- Nazioarteko lankidetzaren langileen artean ingurumen-alarreko tokiko edo nazioarteko lege-esparruari buruzko prestakuntza dutenak eta ingurumen-langileen artean nazioarteko lankidetzaren gaineko prestakuntza dutenak kontratatu.
- Nazioarteko lankidetzarako legeak eta planak sortzeko prozesu partizipatiboak —ingurumen-alarreko agenteetara irekiak— abian jarri.





3

Erakunde-
politikak eta
barne-kultura

Iraunkortasuna nazioarteko lankidetzan behar bezala txertatzeko, oso garrantzitsua da lankidetzaz-agenten publiko eta pribatuak barne-koherentziaren aldeko apustua egitea eta beren erakundearen jardura planetaren muga ekologikoen barnean kokatzea. Garapen-ereduaren eta lparreko pentsamoldeen ezinbesteko aldaketa gertatzen dela bermatzeaz gain, etsenpluaren bidez predikatzeak haren sinesgarritasuna indartuko du kontrako honako alderdi hauei dagokienez: «Aldaketa pertsona bakoitzarengandik eta erakunde bakoitzetik hasten da».

Irizpide sozial eta etikoak txertatzeaz gain, konpromiso proaktibo horrek erakundearen egitura ingurumena sartzera eta iraunkortasuneko barne-arau eta -jardunbide jakin batzuk betetzera bideraturiko **politika instituzional** bat txertatzea ekarriko luke (ikus 7. koadroa). Produktu edo jardura jakin batek bere bizi-zikloan edota gauzatzeko prozesuan ingurumenean izan lezakeen inpaktu negatiboa murriztea bilduko lukete ingurumen-irizpideek, eta horrenbestez, gure inguruan jardun positiboak gauzatzeko ahal izango genituzke.

Esaterako, erakundearen **kudeaketa iraunkorrerako plan** bat sortuko duen **ingurumen-diagnostiko** baten barne-gauzatze partizipatibo bat gomendatzen da. Haren helburu nagusiak honako hauek lirateke: energia-baliabideak eta ura modu arrazionalen erabiltzea, materialak birziklatuz eta berriz erabiliz edota sortutako hondakinak murriztuz hondakinak kudeatzea, emisio kutsatzaileak minimizatzea, paper-kontsumoa murriztea, erosketaren berdearen eta kontsumo arduratsuen politika, enplegatuen mugikortasun iraunkorra, eta erakundearen barruko ingurumen-hezkuntza eta -sentsibilizazioa. Plan hori martxan jartzerakoan, garrantzitsua da plana sortzeko prozesuan parte hartu ez duten pertsonen plan hori aurkeztea eta agertzea, aurretiaz ezarritako adierazleekin jarraipen egokia egitea eta planaren garapen egokia bermatzeko behar diren giza baliabideak eta baliabide ekonomikoak esleitzea.

Horretaz gain, honako neurri hauek hartzea gomendatzen da:

- Erakundearen antolamendu- eta estrategia-dokumentuan, halakorik badago, ingurumena txertatzeko aukera balioestea.
- Erakundearen sail guztietan iraunkortasun-politikak zeharkako bihurtzea.

- Iraunkortasuneko barne-arlo bat sortzea, edo gutxienez, pertsona bati gai horren ardura ematea.
- Ingurumen-kalterik eragiten ez duten edo eremu ekologikoen aldaketa positiboak dakartzaten finantza-zerbitzuak erabiltzearen aldeko apustua egitea (adibidez, banku etikoaren bitartez).
- Erakundeak egiten dituen bidaia edo jardura desberdinetan eta sortzen dituen materialetan ingurumen-ikuspegia hartzea. Esate baterako, zenbait bidaia bideokonferentziekin ordeztu daitezke, eta baita tren erabili ere mila kilometrotik beherako bidaiak egiteko.
- Lana banatzearen eta lanaldia murriztearen politika gauzatea, langabezia murrizteaz gain, planeta babesteko.
- Hondakin informatikoen murriztapena (adibidez, ordenagailuen balio-bizitza luzatuz), materialaren birziklapen egokia eta *software* librearen erabilera balioetsiko lituzkeen e-politika iraunkor bat txertatzea.

Barnean, **iraunkortasunaren politika** garapenerako lankidetzan eraldaketa ekologikorako jomugak lortzeko ezinbesteko faktorea ere bada. Edo beste modu batean esanda, modu partizipatiboan sortzea, urrezko 3 arauak (murriztea, berrerabiltzea, birziklatzea) era normalean aplikatzea, aldaketa pertsonala geure gain hartzea beharrezko aldaketa globalaren zati gisa, eta ikuspegi antropozentriko eta androzentrikotik mundu-ikuskerara biozentrikora aldatzea. Esaterako, pertsonalki nahiz kolektiboki eredu aldatzera zuzendutako gaitasun horiek garatzeko barne-prestakuntzarako plan bat aukera daiteke.

Erakunde-esparruko barne-jardunbide egoki horiek guztiak kanpora hedatzeko abiapuntuak dira; izan ere, kanpoan bilakatzen da erakundeko agente bakoitza aldaketa-agenten (ikus 8. koadroa).

7. koadroa

Erreminta kutxa



Ingurumen-kudeaketarako tresnak

Edozein erakundetan hainbat barne-tresna edo -estrategia egon ohi dira kudeaketa onean edota ingurumen-justizian* oinarriturik lan egiteko.

Ingurumen Kudeaketarako Sistema (IKS). ISO 14001 nazioarteko arauan oinarritutako sistema horrek edozein erakunderako balio du, horren neurria edo sektorea edozein izanik ere, eta bere nahia jarduerarekin sortzen dituen ingurumen-inpaktuak minimizatzea eta ingurumen-legedia betetzea izaki, betiere errentagarritasunari eutsiz. Informazio gehiago izateko:

<<http://www.aenor.es/aenor/certificacion/mambiente/iso14001.asp>>.

Berotegi-efektuko gasen* emisioak murriztea.

Bi metodo daude erakundeen emisioak kalkulatzeko: batetik, GHG protokoloa, eta bestetik, kontabilitate-kontuak eta oinatz ekologikoa.* Zuzeneko nahiz zeharkako emisioen inbentario bat egitea ahalbidetzen dute, eta ondoren, emisio horiek murrizteko plan bat ezartzea. Administrazioek Alkateen Ituna ere badute. Informazio gehiago izateko:

<http://www.ghgprotocol.org/files/ghgp/public/protocolo_de_gei.pdf>,

<http://www.aenor.es/aenor/certificacion/mambiente/mab_verificacion_gei_14064.asp>.

Mugikortasun iraunkorreko plana. Auto pribatuaren erabilera murriztea ahalbidetzen du, *car-pooling* deritzona (autoa ibilbide jakin batean

partekatzea, kotxe barruko pertsonen kostuak murrizteko xedez), *carsharing* deritzona (hainbat erabiltzailek ibilgailuen flota kolektibo bat erabiltzen dute aldi berean), bizikletaren erabilera edota erakundearen jarduerak edota egoitza garraio publikoetatik gertu kokatzea faboratuz. Informazio gehiago izateko: <<http://www.euskocarsharing.com>>.

Kontsumo kontzientea eta eraldatzailea. Bi oinarri ditu: *gutxiago kontsumitzea* (premiak eta nahiak baliabide gehiago kontsumitu gabe betetzea ahalbidetzen diguten ekintzak indartzea) eta *hobeki kontsumitzea* (erraz birzikla daitezkeen material iraunkorrak aukeratzea, nekazaritza eta abeltzaintza ekologikoko produktuak —tokian eginak— erostea, edota ingurumenari eta gizarteari dagokienez arduratsuak ez diren enpresei ez erostea). Informazio gehiago izateko:

<<http://opcions.org/es/blog/consumo-consciente-transformador>>.

Erosketa eta kontratazio publiko iraunkorra.

Estatuan, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko urriaren 30eko 30/2007 Legearen bitartez arautzen da. Kontratazio-prozesuetan iraunkortasun-irizpideak txertatzeko aukera ematen die sektore publikoko erakundeei, eta horretaz gain, ingurumena babesteko jomugarekin iraunkortasun-irizpideak aintzat hartzea presatzen ditu, betiere kontratua betetzeak ingurumenean eragina izan badezake.

8. koadroa

Jardunbide egokiak



Erakundeetako ingurumen-kudeaketaren adibideak

2004az geroztik hona, Ingurumen Hezkuntzarako Zentro Nazionalak ekoauditoretzak egiten ditu berotegi-efektuko gasen* zuzeneko eta zeharkako emisioak kalkulatzeko eta horiei jarraipena egiteko. Informazio gehiago izateko:

<<http://www.marm.es/es/ceneam/programas-de-educacion-ambiental/ecoauditoria-del-ceneam/ecoenergia.aspx>>.

Santiagoko Unibertsitateak (USC) «USC en Transición» izeneko ekimen bat abiarazi du 2011n, eskala txikiko erresilientzia-prozesuak* martxan jartzeko; ekimen horren bitartez bizitza-eredu iraunkorragoak ezagutzera ematen dira, baina horretaz gain, unibertsitatearen oinatz ekologikoa* eta energia-mendetasuna murrizten laguntzeko jomuga ere badu ekimenak.

9. koadroa

Zereginen zerrenda




Erakunde-politikak eta barne-kultura

Garapenerako GKEa edo bestelako lankidetzaren agentea naiz. Zer egin dezaket?

- Ingurumen-kudeaketarako eta/edo emisioen murrizketarako plan bat edota mugikortasun iraunkorreko eta/edo ura aurrezteko planak ezarri, horiek modu partizipatiboan sortuz.
- «Koherentzia-autoebaluazioa» egin, nire erakundearen filosofia eta funtzionamendua aldatzeko (barne-funtzionamendua, metodologia partizipatiboak eta gizarte- eta ingurumen-inpaktua).
- Nire erakundearen kontsumo kontzientea eta arduratsua sustatu.

Administrazio publikoa edo bestelako erakunde finantzatzailea naiz. Zer egin dezaket?

- Ingurumen-kudeaketarako eta/edo emisioen murrizketarako plan bat edota mugikortasun iraunkorreko eta/edo ura aurrezteko planak ezarri, horiek modu partizipatiboan sortuz.
- Erosketa publiko iraunkorreko kontzeptuak txertatu.



4

Eragin
politikoa

Kontuan hartuz Iparreko egitura eta gizartea aldatzea Hegoan iragaite sozioekonomikoa lortzeko ezinbesteko baldintza bada ere nahikoa ez dela, eragin politikoak² funtsezko eta oinarrizko eginkizuna hartzen du honako bi helburu nagusi hauen inguruan:

- Politika publikoak aldatzea.
- Aliantzak eratzea, baita horiek sustatzeko gizarte-sareak ere.

Lehenik eta behin, hurrengo urteei begira krisi sozioekonomikoari eta horren irtenbide posibleei dagokienez garrantzitsuak diren gaiak mahai gainean jartzeko gaitasuna dute gizarte-mugimenduek. Beraz, eragin politikoa *ideien eta jardunbide egokien laborategi* bat da. Hona hemen arestian aipatutako gai batzuk:

- **Politiken arteko koherentzia** lortzea eta antilankidetzaz ezabatzea (ikus 10. koadroa) Hego globaleko* herrialdeen iragaite sozioekonomikoa lortzeko baldintza ezinbesteko baina ez-nahiko gisa. Horretarako beharrezkoa da gobernu-politika guztietan iraunkortasunaren eta garapenerako lankidetzaren printzipioak zeharka aplikatzea eta Hegoko herrialdeetako koherentziaren eragina ebaluatzea.
- **Nazioarteko lankidetzaren finantzaketari buruzko hausnarketa- eta ekintza-bide berriak** irekitzea, kontuan hartuz Ipar globaleko* herrialdeek zor ekologiko* bat hartu dutela Hegoko herrialdeekin. Aldarrikapen klasikoen gain, hala nola kanpo-zorra ezabatzea eta 0,7 (ikus 11. koadroa), konpromiso ekonomikoek honako hauek bil ditzakete: Iparreko herrialdeei antilankidetzako proiektuetan inbertitzea ekiditea; Garapenerako Laguntza Ofizialaren (GLO) ehuneko handi bat krisi ekologikoan* oinarrizko proiektuetara bideratzea; faktore ekologikoa zeharka txertatzen ez duten proiektuetan inbertitzea ekiditea; GLOaren ehuneko sistematizatu bat Ipar-Hego proiektuetara bideratzea; zor ekologikoa konpentsatzeko mekanismoak —GLOaren osagarriak— ezartzea; Ipar-Hego lankidetzarako aurrekontu bat —*mendebaldeko doikuntza ekologikora* bideratua— bermatzea.
- **Munduko merkataritza-elkartrukerako sistema** eta horrekin loturiko erakundeak (Munduko Merkataritza Erakundea, Nazioarteko Moneta Funtsa edota Munduko Bankua) **erreformatzea**, iraunkortasun-eta ekitate-printzipioak nagusi izan daitezen; horretarako,

Munduko Ingurumen Erakunde bat sortu beharko litzateke lehenik eta behin (ikus 12. koadroa).

- **Enpresa-jarduera nazionala edo nazioz gaindikoa** eta Espainiako enpresek edota Iparreko gobernuak Hegoan duten inpaktu sozioekonomikoa **kontrolatzea**, zehazki, nazioarteko, tokiko edota jatorrizko herrialdeko ingurumen-arauak eta beren jokabide-kodea errespetatuz ditzaten, eta horretaz gain, dagozkien gobernuak hala eska diezaieten.

Bigarrenik, metodoak askotarikoak eta osagarriak dira. Hiru kategoriatan sailka ditzakegu:

- **Presioak eta salaketa:** iraunkortasunaren aurkako jardunen gaineko komunikazio- eta sentsibilizazio-kanpainak eta horien ikerketa, jarraipena eta salaketa, funtsezko eragileei bisitak eta elkarrizketak egitea, legegintzako herri-ekimenak, alegazioak, informazioaren eta komunikazioaren teknologien erabilera (ikus 13. koadroa).
- **Baterako elaborazioa:** lankidetzaz edota ingurumen-kontseiluetan eta tokiko 21 agendetako prozesuetan parte hartzea, legeak eta nazioarteko lankidetzarako edo ingurumen-alorreko programak eta planak batera sortzea.
- **Aliantzak eta masa kritikoa sortzea:** lan-, hausnarketa- eta ikerketa-taldeak, prestakuntza-jardunaldiak eta -topaketak edo alternatiben sorkuntza. Esparru horretan, Ipar-Ipar edota Ipar-Hego aliantzak edota hainbat agenteren artekoak (garapenerako edota ingurumenaren aldeko GKEak, kontsumo-, sindikatuek edota kultura-erakundeak eta abar) bilatzea funtsezkoa da iragaite sozioekologikoa lortzeko (ikus 14. koadroa).

2. Honela definitzen dugu *eragin politikoa*: antolatutako herritarrek politika eta programa publikoetan eragina izateko gauzatzen duten prozesu planifikatua, baita izaera edo interes publikoko erabakiak hartzen dituzten eragileei dagokienez ere.

10. koadroa

Xehetasunez



Politiken koherentzia eta antilankidetzak

ELGAREN arabera, Garapenerako Koherentzia Politika honako hau da «gobernu jakin baten garapen-politiken helburuek eta emaitzek garapen-bidean dauden herrialdeetan ondorioak dituen gobernu horren bestelako politiken eragin negatiboak izan ez ditzaten bermatzea, eta politika horiek garapen-helburuak babes ditzaten, hori bideragarria den kasu guztietan».

Espanian, GKP esanbidezko lege-agindua da (Nazioarteko Lankidetzari buruzko 1998ko Legearen 4. artikulua). Garapenerako Lankidetzaren III. Gidaplanak ministerio guztietan koherentziaguneak sortzea aurreikusten du, ministerio guztiak Garapen Politikak Planifikatzeko eta Ebaluatzeko Zuzendaritza Nagusiarekin lankidetzan aritzeko. Gainera, Lankidetzak Kontseiluaren aginduetako bat da urtean behin politiken koherentziari buruzko txosten bat egitea, eta urteko txosten hori Parlamentura eraman behar da.

Jardunbide egoki gisa, Herbeheretako garapenerako lankidetzak politiken koherentziarako unitate bat du.

Gizarte-mugimenduek eta GKEek *antilankidetzak* deritzona ere aipatu ohi dute, Hegoan zuzeneko edo zeharkako kaltea eragiten duten efektuak izanik lparrean eta lparretik gauzatutako jardun oro, bereziki, nazioz gaindiko erakundeek eta estatuek gauzatutakoak, hain zuzen ere.

Informazio gehiago izateko:

- Antilankidetzak: Globalizazioko Zorraren Behatokia, <<http://www.odg.cat/>>.
- «Urge otra Europa» kanpaina: <<http://www.urgetraeuropa.org/es/coherencia.html>>.
- Latinoamerikako Multinazionalen Behatokia: <<http://www.omal.info/>>.
- ALONSO, José Antonio, Pablo AGUIRRE eta Natalia MILLÁN (2010): *Coherencia de políticas para el desarrollo: propuestas para España*, Instituto Complutense de Estudios Internacionales.

11. koadroa

Ba al dakizu...



... nondik datorren 0,7a?

Hirurogeiko hamarkadaren hasieran, hainbat ekonomialarik kalkulatu zuten errenta handiko herrialdeek beren kapitalaren % 1eko inbertsioa egin beharko zutela errenta txikiko herrialdeetan azken horiek «suspertzen» hasteko. Aipatutako ekonomialariak Rostov-en teorian oinarritzen ziren, gizarte tradizionalki «azpigaratuetatik» hasita kontsumo masiboko gizarte industrializatu «garatueta-rainoko» garapen-ibilbide unibertsala ezartzen zuen teorian, alegia.

Lan horiek oinarri gisa hartuta, 1970eko azaroaren 19an eta Ipar-Hegoko laguntzen ikuspegi politiko desberdinen artean eztabaida politiko bizia izan ondoren, Nazio Batuen Batzar Nagusiak % 07aren helburua proposatu zuen adostasun gisa. Laurogeita hamarreko hamarkadan, % 0,7a garapenerako

GKEen aldarrikapen nagusia izan zen Espainian, gobernuek baliabide gehiago eskaini ziezaioten nazioarteko lankidetzari.

Ikuspegi eraldatzaitetik begiratuta, % 0,7aren oinarri gisa erabili zen eredu gaur erabat gaindituta dago errealitate ekologikoarekiko eta sozialarekiko desorekarengatik, baita giza garapen iraunkorreko teoria aurreratuenekiko desorekarengatik ere.

Informazio gehiago izateko:

CLEMENS, Michael A., y Todd J. MOSS (2006): «Le mythe des 0,7 % : origines et pertinence de la cible fixée pour l'aide internationale au développement», *Afrique Contemporaine*, 219, 173-201.

12. koadroa

Xehetasunez



Ingurumenaren Munduko Erakundea

Hainbat gobernu eta gizarte-mugimenduk defendatzen duten Ingurumenaren Munduko Erakundeak ingurumenari buruzko alde anitzeko akordioak errespetatzen eta aplikatzen direla zainduko luke eta esparru bakar batean bilduko lituzke nazioartean ingurumenaz arduratzen diren erakunde guztiak. Nazio Batuen Ingurumen Programan (NBIP) oinarrituta, Erakundearen helburuak honako hauek dira: iraunkortasunaren printzipioen lehentasuna berrestea merkataritza-arauen gainean, munduko ondasun komunak ingurumen-eremuan onar daitezen sustatzea, Hegora teknologia garbiak eta baliabide eko-

nomikoak transferitzea ingurumenari buruzko alde anitzeko akordioak betetzeko, gizartearen partaidetza bultzatzea munduko arazo ekologikoei dagokienez, eta Hegoko herrialdeetako ordezkariak eratzeko nazioarteko negoziazioei begira.

Bestalde, Klima-aldaketari eta Ama Lurraren Eskubi-deei buruzko Herrien Munduko Konferentzian (2010) «Justizia Klimatikoaren Nazioarteko Auzitegia» proposatu zen, «egitearen, edo ez-egitearen ondorioz, kutsatzen eta klima-aldaketa eragiten duten Estatuak, enpresak eta pertsonak prebenitzeko, epaitzeko eta zehatzeko gaitasun juridiko loteslea» duena.

13. koadroa

Jardunbide egokiak



Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak eraginari aplikatuak

Informazioaren eta komunikazioaren teknologien (IKT) goraldiaren ondorioz, indar handiko tresnak daude salatzeko, mobilizatzeko edo gizarte-ekintzarako. Helburua 2.0 webgunearen ahalmenak erabiltzea da, elkarrekintza, komunitatea eta laguntza-sareak sortzeko. Webgunea adimen kolektiboaren eta informazio banatuaren zerbitzura dagoen topaketarako plataforma bihurtzen da, honako kasu hauetan gertatzen den bezala:

- *Online* mobilizazioko komunitate globalak, hala nola Avaaz (<http://www.avaaz.org/es/>).
- Ziberekintza ekologistak edo kontserbazionistak, hala nola Greenpeace (<http://www.ciberactuacongreenpeace.es/>) edo WWF (<http://www.horadelplaneta.es/>).
- Presio- eta informazio-kanpainak, baso tropikalen defentsan espezializatuta daudenak, adibidez (<http://www.salvalaselva.org>).
- Garapenari eta ingurumenari lotutako GKEen *online* aliantzak, hala nola Klima Aldaketaren aurkako Ekintzarako Kanpaina Globala (<http://tcktcktck.org/>) edo 350.org (<http://www.350.org/>).
- Herri indigenak petrolioaren multinazionalen aurka babesteko eskaerak (<http://www.survival.es/noticias/6683>).

14. koadroa

Jardunbide egokiak



Paradigma eta produkzio-eredua aldatzeko aliantzak

L'off praktika. Enginyeria Sense Fronteres, Centre d'Estudis Africans, Medicus Mundi eta Entrepobles erakundeen sentsibilizazio-kanpaina da, Iparreko energia-kontsumo handiaren eta Hegoko giza eskubi-deen urraketaren inguruan sentsibilizatzen duena. Iparrean petrolioarekin dagoen mendetasunaren eta mendetasun horrek goseteari, gatazkei edo biodibertsitatearen murrizketari dagokionez Hegoan dituen ondorioen inguruan hainbat material proposatzen ditu; era berean, Iparretik jarduteko hainbat proposamen positibo egiten ditu (garraio publikoa eta bizikleta erabiltzea eta hegazkinaren ordez trena hartzea, autoa partekatzea eta abar). Informazio gehiago izateko: <<http://www.loff.cat/>>.

Gutxitzeari eta ondo bizitzeari buruzko topaketak. Jardunaldi horietan *gutxitzea** (Iparra) eta *ondo bizitzea** (Hegoa) kontzeptuak landu ziren, Hego-Ipar aliantza eta paradigma berriak bilatzeko. Hegoko eta Iparreko hizlari kopurua berdina izanik eta ikuspegi feminista zeharka sartuz, mugimendu ekologistak (Ekologistak Martxan, Desazkundea), garapenerako mugimenduak (Mugarik Gabe, Euskadiko GKEEen Koordinakundea, Mugarik gabeko Ingeniaritza, Bakea Duintasunez) eta ekonomia sozialeko eta solidarioko mugimenduak (REAS Ekonomia Alternatibo eta Solidarioko Sarea) hartu zuten parte antolakuntzan. Informazio gehiago izateko: <<http://decrecimientoybuenvivir.wordpress.com/>>.

15. koadroa

Zereginen zerrenda




Eragin politikoa


Garapenerako GKEa edo bestelako lankidetzagintza-agentea naiz. Zer egin dezaket?

- Zaintza sozialaren agente gisa jardun.
- Iparreko eta Hegoko garapen-ereduak zalantzan jarri, baita nazioarteko harremanetan indarrean dagoen esparrua ere.
- Erakundeei beren politiketan koherentzia eta antilankidetzaren desagerraraztea eskatu.
- Iparreko nahiz Hegoko bestelako lankidetzaren eta ingurumen-agenteekin koordinatu eta aliatu zaintza-lanetan, eragin-lanetan eta alternatibak eta sareak eraikitzeko lanetan.
- Informazioaren eta komunikazioaren teknologien ahalmenak, 2.0 webgunea eta laguntza-sareak erabili.
- Tokiko politiketan eragin ikuspegi globaletik abiatuta.
- Eragin-kontzeptu berriak sartu: gutxitzea,* antilankidetzaren ondo bizitzea* eta elikadura-subiranotasuna.
- Eragin politikoa sustatu Hegoan.
- Barneko eragin politikorako estrategia bat definitu nire erakundean.

Administrazio publikoa edo bestelako erakunde finantzatzailea naiz. Zer egin dezaket?

- Eragin politikoa lan-ildo gisa onartu.
- Behar adina baliabide eta pertsona bideratu ingurumenaren eta nazioarteko lankidetzaren alorrean gaur egun dagoen legeria benetan betetzeko.
- Politika-koherentzia zeharka aplikatu nire erakundean eta koherentzia hori ebaluatu, bereziki Hegoako herrialdeetan.
- Klausulak ezarri enpresen antilankidetzaren jarduerak arautzeko.
- Garapenerako lankidetzaren sortutako gogoeta, autokritika eta jardunbide egokiak aprobetxatu beste sail batzuetara hedatzeko.
- Ekintza sozioekologikoak antolatu Hegoako erakundeekin.
- Araudia eta zehapenak gogortu ingurumen-erasoen aurka.





5

Hezkuntza eta
prestakuntza

Iraunkortasunaren aldeko hezkuntzaren helburu nagusia planetarekin orekaz eta bakean bizitzen ikastea da. Pentsamendu kritikoa, konplexua eta eraldatzailea sortu nahi du, produzitzeko, kontsumitzeko eta harremanak izateko moduak aldatzearen. Erresilientziaren* eta Iparrari nahiz Hegoari modu positiboan eragiten dion erresistentzia sortzailearen aldeko apustua da. Horrek ekarriko du hezkuntzaren alderdi guztiak (hezkuntza formala eta ez-formala, lanbide-heziketa eta etengabeko prestakuntza) orokorrean eta garapenerako hezkuntza bereziki birpentsatzea.

Curriculuma behar bezala **girotzeko**, iraunkortasuna zeharka eta modu sektorialean txerta daiteke, gida honetan ezartzen diren jarraibideen arabera:

- Ingurumenari eta Ipar-Hego harremanei buruzko oinarrizko ideiak sartzea.
- Elkartasuna eta biologia- eta kultura-aniztasunaren babes globala erronka sozioekologikoak konpontzeko ezinbesteko baldintza direla ulertzea.
- Ikuspegi globala, hainbat jakintza-arloren ikuspegiak (ekologikoa, ekonomikoa, soziala eta kulturala) biltzea ahalbidetuko duena.
- Aldaketa kolektiboa Iparrean, Hegoan garapena ahalbidetzeko (ikus 16. koadroa).
- Balioetan eta naturan oinarritutako hezkuntza, ekintza eta partaidetza sustatzen duten eta ekosistemek autougaltzeko dituzten mekanismoetatik ikastea ahalbidetzen duten erreminten bitartez.

Bestalde, Etorkizun Iraunkorrerako Hezkuntzaren Hamarkadak (ikus 17. koadroa) proposatzen du hezkuntza-ahaleginak honako gai hauetan jartzea:

- Urrezko hiru arauetara (murriztea, berrerabiltzea eta birziklatzea) egokitzen den eta bidezko merkataritzaren eskaerak aintzat hartzen dituen kontsumo arduratsua.
- Iraunkortasuna ahalbidetzen duten garapen teknozientifikoak aldarrikatzea eta bultzatzea, kontrol sozialarekin, eta zuhurtziaren printzipioa sistematikoki aplikatzea.
- Ekintza soziopolitikoak gauzatzea elkartasuna defendatzeko eta toki- nahiz planeta-eskalan ingurumena eta giza eskubideak babestea.

Garapenerako hezkuntzari dagokionez, funtsezkoa da honako prestakuntza-prozesu hauek gauzatzea:

- Garapenerako lankidetzaren agenteek (GKEak nahiz administrazio publikoak) prestatu egin behar dute iraunkortasunaren eta ingurumenaren alorrean.
- Ingurumen-agenteek edo ekologistek nazioarteko lankidetzarekin lotutako alderdietan prestatu behar dute.

Komenigarria da honako neurri hauek hartzea zeharka eta modu sektorialean:

- Garrantzitsua da nazioarteko lankidetzari, iraunkortasunari eta ingurumenari buruzko ikastaro espezializatuak egitea.
- Bereziki, nazioarteko lankidetzako graduondoetan (titulu propioak izan nahiz ofizialak izan) iraunkortasunari buruzko modulu espezifiko bat bildu beharko da.
- Oro har, nazioarteko lankidetzaren ikastaro orotan iraunkortasunaren eta ingurumenaren eremuko hainbat oinarrizko kontzeptu aipatu beharko dira, hala nola zor eta aztarna ekologikoak* ingurumen-justizia,* baliabide naturalen gobernantza, pobrezia/generoa/giza eskubideak eta ingurumena, edo kontsumo arduratsua.
- Modu positiboan balioetsiko da ekologismoaren edo ingurumenaren eremuko profesionalen garapenerako lankidetzaren ikastaroetan esku hartzea, baita esku hartzeko bi sektoreak bateratzen dituzten proiektu praktikoak aurkeztea ere.
- Oso eraginkorra da prestakuntza-eremuan aliantzak egitea agente biderkatzaileen bitartez: kontsumo-taldeak, banku etikoa, kontsumitzaileen elkarteak, ekonomia sozialeko eta alternatiboko sareak, denborabankuak, hiriko baratze ekologikoen elkarteak, eta abar (ikus 18. koadroa).
- Komenigarria da Ipar-Hego harremanei buruzko ikerketa publikoko eta pribatuko ildoak, nazioarteko lankidetzaren eta ingurumena indartzea.

16. koadroa

Jardunbide egokiak



Material didaktikoa eskola-jangela ekologikoetarako

Entrepueblos elkarteak eta Ekimen Kritikoa Izateko Heziketa erakundeak, Garapenerako Lankidetzaren Kataluniako Agentziarekin lankidetzan jardunda, eskola-jatetxe ekologikoen inguruko hezkuntza-proposamen bat argitaratu dute, elikadura osasuntsua eta elikadura-subiranotasuna defendatzen duten Hegoko nekazari familiar eta tradizionalekin lankidetzan jarduteko bide gisa. Proposamen hori ikasgelan eta jangelan jarduerak proposatzen dituzten eta, eta landa eta eskola, eskola eta familia, eta komunitatea eta eskola harremanetan egotea

nahi duten unitate didaktikoek osatzen dute. Eskola-jangela ekologikoak proposatzen dira lur-jabe handien presioaren aurrean Hegoko familiek beren laboreei eusteko, Groenlandiako izotza ez urtzeko, planetaren desertifikazioa geldiarazteko eta Pakistango hazien mintegi tradizionalak bultzatzeko laguntza gisa.

Informazio gehiago izateko eta eskuliburu didaktikoa behera deskargatzeko:
<<http://www.comedoresecologicos.org/>>.

17. koadroa

Ba al dakizu...



... Etorkizun Iraunkorrerako Hezkuntzaren Hamarkadan gaudela?

Nazio Batuen Erakundeak Etorkizun Iraunkorrerako Hezkuntzaren Hamarkada deiturikoa sortu du 2005. urtetik 2014. urtera bitarte, eta UNESCO izendatu du hura sustatzeko ardura duen organo gisa. Hona hemen Hamarkada horren helburuak:

- Herritarrak prestatzen laguntzea, arazoak larriak eta globalak direla dakiten eta erabaki egokiak hartzen parte hartzeko prestatuta dauden herritarrak.
- Hezitzaile guztiak inplikatzeko ekimenak areagotzea, ikastetxeetan hedapen- eta kontzientziakantainak eginez, eta biltzarrak, topaketak, argitalpenak eta abar ere eginez.

Informazio gehiago izateko: <<http://www.oei.es/>>.

Gizarte zibilaren aldetik, *Tratado sobre educación ambiental para sociedades sustentables y responsabilidad global* izeneko Ituna ere badago, Rio de Janeiroko 1992ko Lurraren Goi Bilera egin zenean idatzi zena. Itun hori sinatu zuten pertsonak eta erakundeek adierazten dute ingurumen-hezkuntza «ekintza politikoa dela, gizartearen aldatzeko balioetan oinarrituta dagoena. Ikuspegi holistikoa izan behar du, gizakiaren, naturaren eta unibertsoaren arteko harremana diziplina artekoa izanik». Printzipioez gain, ekintza-planak eta koordinatzeko, kontrolatzeko eta ebaluatzeko sistemak proposatzen dituzte.

18. koadroa

Jardunbide egokiak



Kontsumo kontziente eta arduratsua izateko sentsibilizazioa

Zentuz Kontsumitu-Consume con Sentido Arabako Medicus Mundi elkartearen, Mugarik Gabe erakundearen, Paz y Solidaridad Fundazioaren eta Setem Hego Haizea GKEaren proiektu bat da. Proiektu horretan proposatzen da hezkuntza-prozesu bati ekitea tokiko funtsezko erakundeekin eta instituzioekin, gizarte-kontzientzia sortuz, aukera praktikoak, hurbilekoak eta egunerokoak aldatu eta sustatzeko ekintza gauzatu ahal izateko; horren guztiaren hel-

burua tokiko ingurunean eta herrialde pobretuetan globalizazio neoliberalaren eragin ekonomikoak, sozialak eta ingurumenekoak murriztea izanik. Ekimen horren barnean kontsumo kontziente eta arduratsuari, bidezko merkataritzari, feminismoari, elikadura-subiranotasunari eta transgenikoei buruzko hainbat material (Creative Commons lizentzia dutenak) sartzen dira. Informazio gehiago izateko: <<http://consumoresponsable.info/>>.

19. koadroa

Zereginen zerrenda




Hezkuntza eta prestakuntza

Garapenerako GKEa edo bestelako lankidetzagintza-agentea naiz. Zer egin dezaket?

- Ingurumen-arloko gaietan prestatutako enplegatuak edo boluntarioak eduki.
- Iraunkortasun-gaietako prestakuntza-plan bat ezarri kontratatutako langileentzat eta boluntarioentzat.
- Iraunkortasunerako hezkuntza-proiektuak garatu.
- Nire erakundeko langileak eta boluntarioak ahalordetza ahalbidetuko duten metodologiak erabili.
- Aliantzak ezarri ikastetxeekin, guraso-elkarteekin, irakasleekin, unibertsitateekin eta komunikabideekin.
- Ingurumen-alarreko elkarrekin lankidetzan jardun nire sentsibilizazio- eta hezkuntza-proiektuetarako.
- Zaintza sozialari, negoziazioari/bitartekotzari eta partaidetzari buruzko prestakuntza sustatu.

Administrazio publikoa edo bestelako erakunde finantzatzailea naiz. Zer egin dezaket?

- Ingurumen-alarreko gaietan prestatuta dauden langile kontratatatuak eduki.
- Iraunkortasun-gaietako prestakuntza-plan bat ezarri.
- Iraunkortasunerako hezkuntza-proiektuak finantzatu edo babestu.
- Ingurumenaren arloko politikaren eta legeesparruaren inguruko prestakuntza proposatu edo sustatu zuzenean edo zeharka.
- Nire erakundeko beste sail batzuk prestatu nazioarteko lankidetzan.
- Nire erakundeko ingurumen-zerbitzuekin lankidetzan jardun nire sentsibilizazio- eta hezkuntza-proiektuak egiteko.



6

Esku hartzeko estrategiak eta proiektu-zikloak³


3. Kapitulu honetan batez ere garapenerako lankidetzaproiektuen premiei eremuan erantzuten zaie, baina edukiaren zati bat garapenerako hezkuntzaproiektuei ere aplika dakieke.

Nahitaezkoa da iraunkortasuna esku hartzeko estrategietan txertatzea modu sektorialean nahiz modu horizontalean:⁴

- **Sektoriala:** inbertsioak eta lankidetzaproiektuak, helburu nagusia iraunkortasunari eta ingurumenari buruzkoa denean argi eta esanbidez, edo zuzenean ingurumenari buruzko alde anitzeko akordioak betetzera edo gatazka sozioekologikoen-tzako irtenbideak ematera bideratuta daudenak.
- **Zeharkakoa:** ingurumena garapenerako lankidetzaren sektore, programa eta proiektu guztietan sartzea.

Bi kasuetan, kontuan izan behar da estrategiak prebentziozkoak eta proposatzaileak izan daitezkeela, eta ahal den guztietan bien arteko sinergia bilatu beharko litzatekeela:

- **Prebentziozko** estrategiarekin, garapenerako lankidetzak ez du eragin negatiborik izan behar ingurumenean, eta proiektuetan neurri paraleloak txertatu behar dira pertsona edo erakunde onuradunen ustez saihestezinak diren eraginak modu egokian eta proportzionalen arintzeko eta konpentsatzeko.
- Estrategia **proposatzailearekin**, proiektuen xede nagusia esku-hartze eremuko baldintza sozioekologikoak eta ingurumena esanbidez hobetuko duten helburu estrategikoak, emaitzak eta jarduerak proposatzea da.



Ikuspegi sektoriala

Helburu nagusizat krisi ekologikoaren* aurkako borroka —eta krisi hori arintzea— duten proiektuak abian jartzea XXI. mendeko erronketara egokitutako nazioarteko lankidetzapolitika ororen ardatz estrategikoa da.

Proiektu horiek dagokien protagonismoa izan dezaten, **ekosistemak** —eta modu zabalagoan, gatazka ekologiko-banatzaileak— **babestea eta hobetzea** izan behar du nazioarteko lankidetzagenteen estrategien helburu nagusia.

Ezinbestekoa da **proiektuak ingurumen-sektorean txertatu ahal izateko baldintzak** ezartzea:

- Iraunkortasuna eta ingurumena ildo estrategiko sektorialtzat hartu behar dira (ikus 20. koadroa).
- Gauzatzen diren lankidetzaproiektuen ehuneko jakin bat ingurumenari buruzko alde anitzeko akordioak betetzera egongo da bideratuta espezifikoki.
- Garapenerako Laguntza Ofizialaren aurrekontuaren zenbateko handi bat «gizarte- eta ingurumen-arloko lankidetzarako» soilik izango da.
- Nahitaezkoa da lana ingurumen-arloko sailekin (ikus 21. koadroa) edo Hegoko nahiz Iparreko ekologistasarearekin lankidetzan egitea.
- Garapenerako laguntza eskatzeko dekretu, baremazio eta inprimakietan ingurumen-aldagaia txertatu beharko da (ikus 22. koadroa).

Nolanahi ere, proiektu sektorial horiek modu integralean hartu beharko dituzte bestelako lehentasun horizontalak ere: pobreziaaren aurkako borroka, giza eskubideak eta genero-berdintasuna.

4. Gida honetan *horizontal* eta *zeharka* terminoak sinonimoak dira.

20. koadroa

Ba al dakizu...



... nola identifikatzen duen Espainiako lankidetzak ingurumen-garapenerako Laguntza Ofiziala?

Ekonomia Lankidetzak eta Garapenerako Antolakundeak (ELGA) bezalaxe, Espainiako lankidetzak hainbat markatzaile erabiltzen ditu ingurumenarekin lotutako proiektu kopurua ebaluatzeko.

Ingurumen-iraunkortasuneko markatzaileak ingurumen-alderdiak biltzen dituzten edo eremu jakin bateko ingurumen fisikoa edo biologikoa hobetu nahi duten jardunak identifikatzen ditu.

2009. urtean, Espainiako Garapenerako Laguntza Ofizialean (GLO) urte horretan bertan bildutako alde biko 17.000 ekarpenetatik:

- 2.000 (% 11,54) «ingurumen-arloko iraunkortasuna» deituriko markatzailearekin nabarmendu ziren.
- 645 (% 3,8) «nagusitza» har daitezke, hau da, ekarpen horiek ingurumen-arloko hobekuntza ezinbesteko elementutzat hartzen dute proiektua egiteko.
- 1.300 ekarpenek (% 7,6) ingurumen-arloko hobekuntza nabarmena eranstean dute.

Jardun horietako gehienak Latinoamerikan eta Saharaz azpiko Afrikan daude, eta produkzio-sektoreei, urarekin lotutako azpiegiturei edo ingurumen-arloko zaintzari dagozkie.

Bestalde, Rio de Janeiron 1992an egindako hiru Konbentzioetako markatzaileak erabiltzen dira:

- **Biodibertsitatearen markatzailea:** Dibertsitate Biologikoari buruzko Hitzarmenean azaltzen diren helburuak lortzen laguntzen duten jardunak identifikatzen ditu.
- **Klima-aldaketa arintzeko markatzailea:** berotegi-efektuko gasen* emisioak murrizten dituzten jardunei aplikatzen zaie.
- **Klima-aldaketara egokitzeko markatzailea:** 2011. urtetik aurrera derrigorrez txertatu da.
- **Desertifikazioaren markatzailea:** eremu elkor eta erdielkorretan desertifikazioaren aurka borrokan jarduten duten edo lehortearen eraginak arintzen dituzten jardunak identifikatzen ditu.

Iturriak:

- ELGAren Garapenerako Laguntza Batzordea: <<http://stats.oecd.org/Index.aspx?DataSetCode=CRSNEW>>.
- ATZERRI ARAZOETAKO ETA LANKIDETZAKO MINISTERIOA (2010): *Seguimiento del Plan Anual de Cooperación Internacional (PACI) 2009*, Madril, Nazioarteko Lankidetzako Estatu Idazkaritza.

21. koadroa

Jardunbide egokiak



Ingurumen-lankidetzaren tekniko deszentralizatua

Euskal Fondoa Euskal Lankideen Tokiko Erakundeen Elkarteak —lankidetzaren tekniko deszentralizatua Euskal Autonomia Erkidegoan koordinatzen eta babesten duenak— Hegoan esku hartzen du goi-mailako osagai teknikoko proiektuekin Euskadiko udaletako ingurumen-alorreko teknikari espezializatuen partehartzeari esker. Esate baterako, Chalatenangoko (El Salvador) udalerrri batzuetan hondakin solidoen udalen arteko kudeaketa-sistema bat abian jartzen

ari dira. Ekimen hori Gipuzkoako herrietan hondakin gaikako bilketaren esperientzia berriak lan egiten duten erakunde elkarteak bermatzen dute. Lankidetzaren proposamenaren aholkularitza eta trebakuntza teknikoko osagai bat biltzen da bi alderdiek elkarri jardunbide egokiak trukatzeko.

Informazio gehiago izateko:
<<http://www.euskalfondoa.org>>.

22. koadroa

Xehetasunez



Garapenerako laguntza eskatzeari buruzko dekretuak, baremazioak eta inprimakiak berriz definitu behar dira

Iraunkortasuna lankidetzaren esparru desberdinetan txertatuta gera dadin, nahitaezkoa da erakunde finantzaileek honako alderdi hauek kontuan izatea:

- Proiektuen iraunkortasun ekologikoari buruzko atal jakin bat.
- Ingurumen-eraginari buruzko ebaluazioa, derrigorrezkoa proiektu handientzat edo ekosistemetan eragin esanguratsu potentzialak dituztenentzat.
- Ekintzen gutxienerako kopuru bat proiektu guztietan, Milurtekoko Garapen Helburuen 7. helburua (ingurumenaren iraunkortasuna bermatzea) edo

ingurumenari buruzko alde anitzeko akordioaren bat betetzera bideratuta egongo dena.

- Iraunkortasun ekologikoaren adierazleak, helburuak zenbateraino lortu diren argi, labur eta erraz ebaluatzea ahalbidetuko dutenak.
- Ingurumena zeharka osatzen ez duten proiektuak baztertea.

Proiektuaren zikloan zeharka sartzea

Iraunkortasunaren zeharkakotasunak dakar plan, programa eta proiektu guztiak, eta haien ziklo osoan (identifikazio-, formulazio-, egikaritze-, jarraipen- eta ebaluazio-zikloak) oinarrizko kontzeptuak eta printzipioak kontuan hartzea modu integralean: gizakien ongizatearen eta ekosistemen zerbitzuen* arteko harremana, muga biofisikoekiko errespetua, ekosistemak leheneratzeko eta asimilatzeko gaitasunak, adierazle egokituak erabiltzea, ingurumen-eragina ebaluatzea, ingurumen-ebaluazio estrategikoa eta abar.

Garrantzi bera eman nahi zaie ekologiari eta bestelako gai horizontal klasikoei, hala nola genero-ikuspegiari edo giza eskubideei.

Atal honetan, eta gomendatutako beste erreminta batzuk badauden arren (ikus 23. koadroa), iraunkortasuna proiektuaren zikloan biltzen da, batez ere esparru logikoan eta lpar-Hego lankidetzan tradizionalean. Horretaz gain, honako alderdi hauek ere erantsi behar dira:

- Kapitulu honetan zeharka sartzeaz gain, generoari eta iraunkortasunari buruzko jarraibide batzuk (ikus 24. koadroa).
- Leihoa irekita eduki behar da bestelako lankidetzaflexuak hartzeko (ikus 25. koadroa).
- Irizpide batzuk CO₂ren borondatezko merkatuetan parte hartzeko (ikus 26. koadroa).



23. koadroa

Xehetasunez

Bizitza dago esparru logikotik haratago

Garapenerako lankidetzaren alorrean gehien erabiltzen den erreminta esparru logikoa izan arren, badaude beste erreminta baliagarri batzuk ere, askotan hainbat oinarritzko printzipio kontuan hartzea ahalbidetzen dutenak. Gida honetan honako oinarritzko printzipio hauek aipatu dira: pertsona onuradunek aldaketaren subjektu aktibo gisa parte hartzea eta ahalduntzea, aliantzak eta sareak sortzea eta esperientziak trukitzea, ikuspegi holistikoa, kualitatiboa eta epe luzerakoa, aldaketa sozioekologikoa, eskubideen ikuspegia, atzeraelikadura eta helburuen eta jardunen arteko koherentzia.

Jarraian, metodologia osagarri horietako batzuk aurkeztuko ditugu. Metodologia horietan guztietan azaltzen da ikuspegi partizipatiboak aplikatu behar direla eta garrantzi handiagoa eman behar zaiola agenteen azterketari. Gehienak ebaluazioak egiteko erabil daitezke.

Gizarte-arloko ideia nagusia: egileen eta egile horien arteko harremanetan oinarrituta dagoena, sare-ikuspegia eta agente bakoitzaren ibilbideak eta ezaugarriak (egungo egoera eta espero diren aldaketak) diseinatzeko ikuspegia garatzen duena. *Software online* bat dago sare-mapa hori ikusteko.

Landa-diagnostiko partizipatiboa: partaidetzaren bitartez komunitatearen autodeterminazioa lortzen laguntzen du, garapen iraunkorra sustatzeko. Parte hartzen dutenek beren arazoak azaltzen dituzte autoazterketaren bitartez, eta konponbideak modu planifikatuan azaltzen dituzte autokudeaketaren bitartez. Hiriko komunitateetan ere erabil daiteke.

Garrantzien mapaketa: plangintzaren, jarraipenaren eta ebaluazioaren metodo integratua, garapen-prozesuek duten konplexutasuna aintzat hartzen

duena. Partaidetzan eta ikaskuntza errepikakorrean oinarritzen da. Proiektuan tartean sartutako pertsonen edo proiektuaren onuradunak diren pertsonen portaerak duen garrantzian oinarritzen da.

Zapalduaren antzerkia: sorkuntza kolektibo eta partizipatiboko antzerki-metodoa da; ariketa fisikoen, joko estetikoaren, irudi-tekniken eta inprobisazioaren bitartez norbanakoari eta komunitateari beren nondik norakoak eta botere- nahiz zapalkuntza-harremanak aztertzen laguntzen zaie, baita aldatzeko proposamenak egin eta proposamen horiek adierazteko espazio bat sortzen ere.

Capacity Works: metodo horren bitartez proiektu edo programa baten ondorio soziopolitiko, ekonomiko eta ekologiko guztiak ebaluatzen dira. Helburuen eta emaitzen arteko kontzertazioa, metodologiari dago-kionez, negoziazioko oinarritzko prozesu politiko moduan egituratzen da esfera horien arteko gatazkak gainditzeko.

Aurrera begirako plangintza: metodologia «zirkular» horren bidez esku-hartzeak definitzen dira agente bakoitzak etorkizunerako dituen helburu, amets edo idealen arabera eta proiektu baten ekintza zehatzak ere txertatzen dituen agertoki zabalagoak definituz.

Informazio gehiago izateko:

ECODE (ESTUDIO DE COOPERACIÓN AL DESARROLLO) (2011): *Esparru logikoa EAEn: azterlan kritikoa*, ECODE eta Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia. Webgune honetan eskura daiteke euskaraz: http://www.ecode.es/marco_logico/pdf/euskara.pdf.

24. koadroa

Erreminta kutxa



Iraunkortasuna eta genero-jarraibideak

Zeharka eta modu sektorialean, genero-ikuspegia txertatu ahal eta behar da proiektu baten fase guztietan, betiere ingurumenarekin loturiko ikuspuntutik begiratuta.

Diagnostikoan:

- Emakumeak eta gizonak bereiztea, natura-baliabideekin loturiko onuren sarbidea, erabilerak, eskubideak eta banaketa aztertzea. Bi sexuen arteko botere-desorekak eta aldeak nabarmentzea.
- Bereziki, genero-rolen berri izatea —lana sexuaren arabera nola banatzen den ere aztertuta— ekosistemen antolamenduan, natura-baliabideen bilketan —etxerako eta diru-iturri moduan—, edo lurren eta uraren zaintzan.
- Erakundeen genero-dimentsioak atzeman eta deskribatzea, gizartearen maila guztietan.

Formulatzeko eta egikaritzeko fasean:

- Emakumeek diseinatu, planifikatu eta gidatutako politika eta proiektu sozioekologikoak abiaraztea.
- Emakumei zuzenean mesede egiten dieten proiektuen alde egitea: haien lan-karga eta erregaiak edo ura bilatzeko ematen duten denbora murriztea; natura-baliabideekin loturiko jarduerak, diru-iturri direnak; produkzioko edo antolaketako gaitasunak indartzea; edo osasuna hobetzea eta etxebizitzetan airearen kutsadura gutxitzea.
- Emakumeentzat berdintasuna bermatzea lege-estatusari dagokionez, eta ingurumen-espazioetan sartzeko eta horien jabe izateko eskubidea bermatzea.

- Nazioarteko edo tokiko negoziazio eta foroetan ordezkaritza paritarioa bermatzea, baita ingurumenarekin loturiko erabakiak hartzeko edozein prozesutan ere.
- Emakumeen jakintza eta jakinduria ekologikoak onartzea.
- Emakumei eta gizonei informazioa, sentsibilizazioa, ahalduntzea eta prestakuntza eskaintzea modu berezitan, generoaren eta ingurumenaren gainean.

Jarraipena eta ebaluazioa egiteko, generoaren eta ingurumenaren ikuspegiari egokitutako adierazleak aurreikustea garrantzitsua da, baita ebaluazio partizipatiboak egitea ere, emakumeek eginkizun aktibo eta nagusia izanik.

Informazio gehiago izateko:

- PNUD (NAZIO BATUEN GARAPEN PROGRAMA) (2007): *Enfoque de equidad de género para iniciativas de energía sostenible*, PNUD.
- PNUMA (NAZIO BATUEN INGURUMEN PROGRAMA) (2004): *La mujer y el medio ambiente*, Nairobi, PNUMA.
- PULEO, Alicia H. (2011): *Ecofeminismo para otro mundo posible*, Madril, Cátedra.
- WOMEN'S ENVIRONMENTAL NETWORK (2010): *Gender and the Climate Change Agenda. The impacts of climate change on women and public policy*, Women's Environmental Network.

25. koadroa

Xehetasunez



Beste lankidetz-fluxuak: Hego-Ipar, Hego-Hego eta Ipar-Ipar

Hego-Ipar lankidetza «alderantzizko» lankidetz-fluxua da, hau da, Hegoko herriek (lankideak) Iparreko herrii (onuradunak) zuzenean edo zeharka egiten diete eta azken horiei elkarren artean eta inguru-nearekin harremanetan jartzeko beste modu bat erakusten diete. Ildo beretik, biziki interesgarriak dira honako esperientzia hauek: Indiako hazibankuak, ondasun erkideen kudeaketa iraunkorra komunitate indigenen artean, Ekuador eta Boliviako *ondo bizitzea** kontzeptua, edo Mexikoko nekazarien jakintza astronomiko, biologiko eta geografikoak sistema agroekologikoetarako. Hego-Ipar lankidetz askotarikoa izan daiteke eta oraindik modu asko aztertzeke daude: mintegiak, gaikuntzak, Iparreko erakundeetan Hegoko ordezkariak sartzeari hitz egiteko eta botoa emateko ahalmena dutela eta abar.

Hego-Hego lankidetzari dagokionez, garapen (ondoko)-prozesuen birkokatzea pentsatzeko eta eraikitzeo aukera eskaintzen du, eskualdean lankidetz indartuz zentro(ohi)arekiko autonomoak diren periferia(ohi)en artean. Teknika eta jakinduria tradizionalak berreskuratu eta norberak bere bidea egiteko modua da, Ipar globalaren* esku-hartzerik gabe.

Ipar-Ipar lankidetzari dagokionez, herrialde industrializatuetan egiturazko egokitzapena egitea denez premiazkoena, «garapenerako hezkuntza» lortzea da xedea, Iparrean iraunkortasunera bideratutako hezkuntza ezartzearen (ikus hezkuntzari buruzko 5. kapitulua), baita ekimenak elkartrukatu eta lankidetzan garatzea ere, gizarte posfosilista bat izateko. Adibidez, oso interesgarriak dira Iparreko herrialdeetako lurraldeetan erresilientzia* komunitariora bideratutako Trantsizioko Ekimenak, edo Ipar-Ipar bidezko merkataritzako proposamenak elikadura-subiranotasuna* sustatzearen, produzitzaile eta kontsumitzaileen arteko beste harreman batzuk, ustiapen txikien euskarria eta produktuen kalitate sozioekologikoa Iparrean.

Informazio gehiago izateko:

MARÉCHAL, Gilles (2011): *Commerce équitable : quel transfert d'expérience vers des circuits Nord-Nord ?*, <http://www.civam-bretagne.org/civam.php?pj=45&ref_rub=14&ref=56>.

26. koadroa

Xehetasunez



CO₂aren merkatu boluntarioetan parte hartzeko irizpideak

CO₂aren emisioak konpentsatzeko ideia Kiotoko Protokoloan sortu zen, bereziki, garapen garbiaren mekanismoaren* bitartez eta, datozen urteotan, garrantzi handiagoa izan dezake REDD+* delakoaren bitartez. GKE edo erakunde batek bi modutara parte har dezake CO₂aren merkatu boluntarioetan:

- Berotegi-efektuko gasen* emisioak konpentsatuz merkatu boluntarioko Ipar-Hego proiektuen bitartez.
- Merkatu boluntarioan Ipar-Hego proiektuak zuzenean garatuz, pertsona edo erakunde pribatu edo publikoen konpentsazioak jasoz.

Gutxieneko irizpideak proposatu dira bi lan-ildo horietarako honako galdera hauetan oinarrituta:

- Nire GKEa edo erakundea ados al dago garapen garbiaren mekanismoen* eta merkatu boluntarioen planteamendu teoriko eta ideologikoarekin? (Erantzuna baiezkoa bada, jarraitu aurrera hurrengo galderekin.)
- Nire emisioak konpentsatuz gero:
 - Nire lehentasun al dira nire erakundearen egiturazko ingurumentzea eta CO₂ emisioak murrizteko plana?
 - Konpentsazio boluntarioari dagokion dirukopurua inberti al dezaket zuzenean klima-aldaketa murrizteko edo moldatzeko proiektuetan?

- Ba al dakit gardentasunez zer proiektu mota finantzatzen diren nire konpentsazioekin?
- Ba al dakit konpentsazioaren zein zati erabiltzen den proiektua Hegoan garatzeko eta zein zati bideratzen den administrazio-kostuetara? (Oso handia baldin bada, negatiboa da.)
- Proiektu bat gauzatuz gero:
 - Konpentsazioa berotegi-efektuko gasak* murrizteko plan batekin lotzen al dut erakunde konpentsatzailean?
 - Saihesten al dut *antikompentsazioak* jasotzea? *Antikompentsazioak* zera dira, jarduera orokorren ondorioz klima-aldaketan eta ekitatean eragin negatiboa duten erakunde edo pertsonen egiten dituzten konpentsazioak.
- Bi kasuetan:
 - Finantzatutako proiektua konpentsazio boluntarioen onurei esker gauzatu da (positiboa) edo bestela ere gauzatuko zen (negatiboa)?
 - Zer eremu geografikotan gauzatu da proiektua? (Herrialde pobretuei lehentasuna eman garatzeko bidean dauden herrialdeen gainetik.)
 - Finantzatutako proiektuak tokiko komunitateen mesederako dira eta iraunkortasunarekin, parte-hartzearekin, generoarekin eta giza eskubideekin loturiko irizpideak biltzen dituzte?

Identifikazioa

Gizartearen, ekonomiaren eta kulturaren arloko baldintzetan ez ezik, lankidetzako eta ingurumeneko proiektuen identifikazioak esku-hartzearen testuinguruaren ingurumen-baldintzetan ere oinarritu behar du, betiere gatazka sozioekologikoen ikuspegi dinamikoari jarraiki.

Gai ekologikoak diagnostikoan txertatzeko jarraibideak

Kontua ez da natura-baliabideak modu estatikoan deskribatzea soilik, baizik eta honako alderdi hauek modu dinamikoan nabarmentzea:

- Esku-hartze eremuko gizarte- eta ingurumen-arloko gatazka nagusiak, aktoreek natura-baliabideekiko eta ingurumen-zerbitzuekiko sarbidea izatearen ondoriozkoak eta, aldi berean, kutsaduraren kargen ondoriozkoak.
- Aktoreen mapa, gizarte- eta ingurumen-dinamika honen barruan haien balioak eta interesak adierazita.
- Esku-hartze eremuko ingurumenaren eta sozioekologiaren arloko gaitasun instituzionalak, tokian eta eskualdean: ekosistemak zaintzeko eta kontserbatzeko araudia (nazioarteko konpromisoak txertatzea, batik bat, ingurumenari buruzko akordio aldeaniztunekin), erakunde arduradunak, ekimen interesgarriak ikuspegi soziologikotik begiratuta, eta abar.
- Erakunde finantzatzailearen ingurumen-arloko helburu eta politikak.

Helburuen eta arazoan zuhaitzetan

Helburuen eta arazoan zuhaitzak egitea etapa nagusia da eta proiektuaren gainerako garapenean iraunkortasuna behar bezala txertatzea baldintzatzen du. Honako urrats hauek egitea komeni da:

- Xede-biztanleria eraginpean hartzen duten ingurumen-baldintzak, etorkizuneko premiak betetzeko gaitasuna arriskuan jar dezaketen egungo joerak eta kanpoko arazo edo arazo globalen aurrean egindako tokiko ekarpenak nabarmentzea.
- Helburuen eta arazoan zuhaitzetako kate logikoetan, ingurumenaren eta honako alderdi hauetako bakoitzaren arteko erlazioak aztertzea: pobrezia, giza eskubideak eta generoa.
- Helburuen zuhaitzean, garapenerako helburu orokorrak erdiesteko —zuzenean edo zeharka— lagungarri diren ingurumen-helburuei eustea.
- Baliabideen edo natura-kapitalaren kontserbazioarekin eta iraunkortasunarekin loturiko helburu espezifikoaren arabera proiektuak hautatzea.
- Egiaztatzeko, helburuen zuhaitza egiten amaitutakoan, gizarte- eta ingurumen arloko helburuak atzemandako kategoria bereko arazoekin bat ote datozen galdetuko diogu geure buruari.

Beste urrats batzuk

- **Onuradunen** azterketaren esparruan:
 - Talde jakin batzuei laguntza ematean gertatuko omen diren gizarte- eta ingurumen-gatazka motei buruzko galderak egitea.
 - Transformazio ekologikoko prozesuetan agente nagusizat txertatzea elkarrekin ekologistak eta ingurumenaren aldekoak, baita tokian, eskualdean, nazioan eta orokorrean gatazka sozioekologikotatik sortutako ingurumen-justiziako* mugimenduak ere.
 - Horrelako agenteei dagokien esparru logikoa zurrunda den arren, ahal dela, «ahotsik ez dutenak» ez ditugu ahaztu behar (hau da, natura eta etorkizuneko belaunaldiak), ezta proiektuak subjektu horiei zertan egiten dien mesede ere.
- Identifikazio-prozesu osoan, **alderdi interesdunen ingurumen-kezkak** modu partizipatiboan ezagutu eta kontrastatzea, emakumeen parte-hartzeari bereziki erreparatuta.

- **Estrategiak hautatzea** gizarte- eta ingurumen-inpaktuen arabera eta ekosistemen hobekuntzan duten eragin positiboaren arabera. Proiektu guztiek izan beharko lukete **ingurumenaren aurretiazko ebaluazio bat** edo **ingurumen-arriskuaren azterketa bat** (ikus 27. koadroa). Azpiegitura-proiektuen edo inpaktu oso handiko proiektuen kasuan, ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa egitea ezinbestekoa da, proiektua gauzatzeko den herrialdeko eta herrialde emaileko legediak errespetatuz betiere.

- Zeintzuk dira proiektuarekin eta esku-hartze sektorearekin loturiko ingurumen-inpaktuak edo presioak? (Ingurumen-inpaktuaren azterketa egin bada, hondar-inpaktuen onargarritasuna ebaluatu.)
- Proiektua egikaritzeak zein ingurumen-efektu izan ditzake?
- Ingurumen-arloko gaitasun instituzionalek eta lege-esparruak finkatzen al dituzte ingurumenaren eta proiektuaren arteko loturak kontuan hartzeko beharrezkoak diren oinarriak?
- Adierazleek jasotzen al dituzte ingurumenarekiko loturak eta iraunkortasun-kezka nagusiak?
- Kanpo-faktoreetan ingurumen-aldagaia txertatu al da?

Formulazioa

Eta honetan ingurumen-ikuspegia txertatzeak bi helburu ditu:

- Lankidetzako proiektu edo programek eragin dezaketen **ingurumen-inpaktu negatibo oro** —dela zuzena, dela zeharkakoa— **identifikatu eta saihestea** (prebentzioa).
- **Aukerak onartzea**, ingurumen-hobekuntzaren ondorioz irabazi gehigarriak eraginez zuzeneko eta zeharkako onuradunentzat (proposizioa).

Helburu horiek betetzeko, hona hemen funtsezko galderak:

- Planifikaturiko ekintzak eta helburu espezifikoak, baita esku-hartze eremuko jardura sozioekonomikoak ere, bereziki arriskuan edo kalteberatasun-egoeran al daude hondamendi naturalen, klima-aldaketaren, desertifikazioaren eta abarren aurrean?
- Helburu, ekintza eta jardura horiek natura-baliabideen erabilgarritasunaren mende al daude nabarmen?
- Proiektuaren bideragarritasun teknikoan eragin dezaketen ingurumen-baldintzak (mugak eta aukerak) gogoan izan al dira?

Egikaritzea

Proiektu bat egikaritzeko garaian, ahal den heinean kontuan izan beharreko oinarriko ingurumen-irizpideak izaten dira, proiektu bakoitzaren arabera betiere:

- **Energia-iturriak eta horien erabilera.** Iturri berriak eta eraginkorrak bilatu eta erabili behar dira, denbora luzez hornidura bermatuko dutenak. Mekanismo simple eta eraginkorren erabilera kontuan izateaz gain, sentsibilizazio eta prestakuntzako programak gauzatea ere funtsezkotzat jotzen da energia-baliabideen erabilera eta kudeaketari dagokionez eta ezartzeko hautatu diren energia-instalazioen mantentze-lanekin eta konponketekin loturiko trebakuntza espezifikoari dagokionez.
- **Ura eta uraren kudeaketa.** Ur-hornidurako proiektuen bitartez uraren gutxieneko galtzeak eta hornidura bermatzeaz gain, baliabidearen jatorri diren

ekosistemak (arro hidrologikoak, iturburuak...) egoera onean izan beharko dira, osasun publikoari eragingo dioten kutsadura-arazoak saihesteko.

- **Material eta produktuen hautaketa.** Funtsezkoa da hainbat gai kontuan izatea, hala nola materialen iraupena, bizi-zikloa, jatorria (material birziklatuekin edo birziklagarri ziurtatuekin egindako produktuak lehenestea, edo tokian bertan eta modu ekologikoan produzitutakoak), produzitzeko moduak (bidezko merkataritza, giza osasunaren eta ingurumenaren errespetua...), edo lehengaien erabilera minimizatzea eta ingurumen-inpaktua murriztea, erosketa eskari errealarari egokituta. Horretaz gain, eraikin bat kokatu eta orientatzeko garaian, eta energia ahalik eta gehien aprobetxatzearen, bioeraikuntzako irizpideei jarraitzea oso garrantzitsua da.
- **Mugigarritasun iraunkorra.** Proiektuko langileentzat ibilgailu jakin bat erosi edo garraiobide bat hautatzeko garaian, hainbat kontu aintzat hartzea komeni da; CO₂aren emisioak, esaterako, baita borondatezko lankideek Ozeano Atlantikoan zehar egin beharreko bidaiak murrizten saiatzea ere. Bestalde, jarduera bat non egingo den aukeratzeko garaian, onuradunak erraz iristeko moduko tokia hautatu behar da (denbora, dirua eta garraioibideei dagokienez).
- **Hondakin-kudeaketa.** Lehenik, materialak murriztu eta berrerabiltzeko irizpideei jarraitu behar zaie, ahalik eta hondakin gutxiena sortzeko edo hondakinik ez sortzeko. Material biodegradagarriak eta birziklagarriak erabiltzea bultzatu behar da, ingurumenari eta osasunari kalterik egiten ez diotenak. Gainera, errealitate bakoitzera egokitutako hondakin-kudeaketako planak ezarri behar dira, errausketa eta ezabatzea azken aukerak izanik.
- **Ingurumen-hezkuntza, antolaketa-trebakuntza eta politiken formulazioa.** Antolatze gaitasuna, politiken formulazioa eta garapen instituzionala ere aipatu behar dira; izan ere, esku-hartze eremuetan iraunkortasun-politikak ezartzeko esparru egonkorra bermatu behar baita.

Jarraipena

Proiektuen adierazleak testuinguruari, prozesuari eta inpaktuari dagozkion adierazleak izan daitezke, edo kuantitatibo nahiz kualitatiboak, eta parte-hartzeari edo ahalduentzeari buruzko balorazioak ere izan ditzakete. Adibidez, proiektuak ekosistemetan denboran zehar izan ditzakeen inpaktu positiboak eta negatiboak (zuzenekoak eta zeharkakoak) neur ditzakete: ura, energia, hondakinak, mugigarritasuna, obrak eta abar. Proiektuaren hasieratik iraunkortasun-adierazleak multzo bat finkatu behar da, aplikatzeko eta erreplikatzeko erraza eta jardunen jarraipen egokia egitea ahalbidetzen duena. Proiektuen adierazle-kategoria nagusiak aipatuko ditugu jarraian, baina horietaz gain, beste adierazle globalago batzuk ere gogoan izan behar dira (ikus 28. koadroa), edo eremu jakin baten errealitate sozioekologikora egokitutakoak (ikus 29. koadroa):

- **Ingurumenaren eta iraunkortasunaren lege-esparrua:** tokiko legeak eta araudia kontuan izatea proiektua edo estrategiak bideratu edo egikaritzean.
- **Energiaren, ura eta saneamenduaren, hondakinen, natura-baliabideen, biodibertsitatearen adierazle sektorialak:** irizpide horien guztien kasuan birsorkuntza- eta asimilazio-gaitasunak* zehaztea eta onuradunek baliabide horietarako sarbide ekitatiboa izatea, etorkizuneko belaunaldien eskubideak barnean hartuz.
- **Zeharka:** ingurumenarekin loturiko gaitasunak sortzea, prestakuntza eta informazioa, komunitatearen parte-hartzea agenteen natura-baliabideetarako sarbidea zehazteko eta azken horien jabetza ezartzea, genero-ikuspegia kontuan izanik.

Ebaluazioa

- **Egokitasuna:** Proiektuak kontuan hartu al ditu arazoak azterketan identifikaturiko ingurumen-alderdiak?
- **Eraginkortasuna:** proiektuak bete al ditu ingurumen-baldintzak eta -helburuak?
- **Efizientzia:** proiektuak modu eraginkorrean erabili al ditu ingurumen-baliabideak?
- **Iraunkortasuna:** proiektuaren emaitzak arriskuan egon al daitezke ingurumen-narriaduraren (edo baliabideen pobretzearen) ondorioz?
- **Inpaktua:** proiektuak zer ekarpen egin dizkio garapen iraunkorrari eta zeintzuk izan dira proiektuaren helburuetatik kanpoko gizarte- eta ingurumen-efektuak?

Beste zenbait gomendio:

- Deialdi espezifikoak sortzea ingurumen-inpaktuak identifikatu edo ebaluatzeko.
- Ebaluazio partizipatiboak egitea (ikus 23. koadroa).

Gehiago jakiteko

- AUSTRALIAN AGENCY FOR INTERNATIONAL DEVELOPMENT (AUSAID) (2003): *Environmental Management Guide for Australia's Aid Program 2003*, Canberra, AusAID.
- EUROPEAID (2007): *Manual de integración del medio ambiente en la cooperación al desarrollo de la Comunidad Europea*, Brusela, Europako Batzordea.
- FUNDACIÓN BIODIVERSIDAD eta FUNDACIÓN IPADE (2011): *Manual para la integración del medio ambiente en proyectos de desarrollo*, Fundación Biodiversidad/ Fundación IPADE.
- GONZÁLEZ, Lara (koord.) (2007): *Indicadores de consulta para el diagnóstico y evaluación de intervenciones de desarrollo*, Kalidadea. Hemen dago eskuragarri: <<http://www.kalidadea.org/experiencias.htm#D>> (ikus bereziki ingurumen-iraunkortasuneko adierazleen taula).
- LÓPEZ, Ainhoa, eta Irantzu VARELA (2009): *Garapenerako lankidetzaren proiektu eraldatzaileak egiteko esku-liburua. Gaitasunen indartzearen, partaidetzaren,*

27. koadroa

Erreminta kutxa



Ingurumen-inpaktuaren aurretiazko ebaluazioa

NBE-Hábitat-en **ingurumen-semaforoa**. Ebaluazio partizipatibo bat da eta hiriko nahiz landa-eremuko ingurumenari buruzko pertzepzio komunitario edo indibidualak neurtzen ditu, honako alderdi hauen arabera:

- *Kalitatea*: ingurumenarekin loturiko zerbitzu edo baliabide baten egungo egoera.
- *Estaldura*: onuradunen zenbateko proportzioak duen sarbidea zerbitzu jakin batera.
- *Arriskua*: pertsonen bizitzaren eta ondasunen gain kalte edo hondamendi bat gertatzeko aukera, arrazoi natural edo antropikoek eraginda.
- *Kudeaketa*: ekintzak planifikatu eta egikaritzeko, eta jarraipena eta ebaluazioa egiteko gaitasun instituzional eta komunitarioa.

Informazioa azpisisistemetan oinarrituta antolatzen da: fisikoa, soziokulturala, ekonomikoa, instituzionala eta kudeaketakoa. Horietako bakoitza, aldi berean, hainbat osagai eta adierazletan zatitzen da eta kalifikatu egin behar dira (oso ona-oso txarra eskala); puntuazio handienak berdez agertuko dira, erdi-mailakoak horiz, eta gorriz puntuazio txikienak. Hartara, esku-hartze eremuaren ingurumen-kalitatea erraz bisualizatzen da.

Informazio gehiago izateko:

NBE-HÁBITAT (2010): *Articulando las agendas verde y marrón en un contexto de cambio climático. Guía para la formulación de agendas ambientales locales en Colombia*, Bogota, NBE-Hábitat.

Ingurumen-arriskuaren ideia nagusia. Proiektua hasi aurretik proiektuak «izan dezakeen ingurumen-inpaktua» ebaluatzen du (pertsonen, komunitateari, flora edo faunari, azpiegiturari edo dagoen bitartekoari; urak, lurra eta airea kutsatzea; natura-baliabideen kontsumoa birsorkuntza- gaitasuna* gaindituz) eta bi sarrerako ideia nagusi bat egiten da:

- Inpaktuak gertatzeko aukera (handia, ertaina, txikia).
- Inpaktuen larritasuna (oso larria, larria, erdi-mailakoa edo ezdeusa) lege-irizpideen arabera (legerik ba ote dagoen eta betetzen ote den), inpaktuaren edo alarma sozialaren magnitudea, itzulgarritasuna eta eskala.

Halaber, ingurumenari dagokionez, esku-hartzeari loturiko arriskua (= aukera x larritasuna) identifikatzea ahalbidetzen du, baita erabakiak hartzea ere:

- *Kritikoa*: proiektua ez egikaritu.
- *Handia*: jarduera hori ez egikaritu diseinatuta dagoen moduan eta balioetsi proiektua bideragarria ote den jarduera hori gabe.
- *Ertaina*: jarduera aldizka ebaluatu, jarduera osagarriak proposatu behar izanez gero ere.
- *Txikia*: arazorik ez.

Informazio gehiago izateko:

<<http://www.zabalketa.org/>>.

28. koadroa

Erreminta kutxa




Giza garapenaren indizea osatzea iraunkortasunaren ikuspegitik begiratuta

Giza garapenaren indizean (GGI) ingurumen-ikuspegia ez denez kontuan izaten, iraunkortasuna aztertzeke beste adierazle batzuk gehitu behar zaizkio; esate baterako:

- **Oinatz ekologikoa:** giza gizarteak biosferan duen inpaktua kalkulatzeko, erabiltzen ditugun baliabideak eskaintzeko eta gure hondakinak xurgatzeko beharrezkoa den lur-eremua eta itsas eremua —biologikoki produktiboak— neurtuta. GGIn oinatz ekologikoarekin gurutzatzea komeni da, herrialde edo eskualde bakoitzak «iraunkortasunaren kaxan» sartzeko egin behar duen bidearen ikuspegi osatuagoa lortzearren (ikus 3. irudia).
- **BPG berdeak:** barne-produktu gordinaren irabazietatik kutsadura eta baliabideen degradazioa, krimena eta bestelako ezbehar ekonomikoak kendu eta onurak —borondatezko lana edo seme-alaben hazkuntza— gehitzen dituzte.
- **Happy Planet Index (HPI):** eraginkortasun ekologikoa kalkulatzeko, zoriontasunari, bizitxaropenari eta oinatz ekologikoari loturiko datuak kontuan izanik (New Economics Foundation).

3. irudia

Uzkurtzen eta konbergentzian dauden herrialdeak giza garapenaren indizearen eta oinatz ekologikoaren arabera



Iturria: Geuk egina.

- Nazio Batuen Erakundearen ustez, herrialde bateko giza garapenaren indizea 0,8tik gorakoa denean esan daiteke herrialde horrek giza garapen altua duela (lerro eten horizontala).
- *Planeta Vivo 2010* (WWF) txostenaren arabera, biztanleko 1,8 hektarea globaleko aztarna ekologikoa planetaren 2007ko bioahalmenari dagokio (lerro eten bertikala).
- Iraunkortasun-kaxa 0,8tik gorako giza garapenaren indizeari dagokio, biztanleko 1,8 hektarea globaleko aztarna ekologikoarekin. Herrialde bakoitzean, honako helburu hau lortu behar da: giza garapen iraunkorra.

29. koadroa

Jardunbide egokiak



Ondo bizitze* iraunkorraren adierazlea

Acre Brasilgo estatu pobreenetako bat da eta giza garapenaren adierazleak definitu ditu, baina ingurumena eta euren aberastasun nagusia kontuan izanik: amazoniar basoa. Prozesuan Brasilgo ekonomialariek eta tokiko gizarte zibilak —lehen-lehenik

herri indigenek— parte hartu dute eta Frantziako GKE baten eta unibertsitate baten aholkularitza izan dute.

Informazio gehiago izateko: <<http://www.france-libertes.org/Creation-de-l-Indicateur-de-bien.html>>.

30. koadroa

Zereginen zerrenda



Proiektuen zikloa

Garapenerako GKEa edo bestelako lankidetzaz-egitea naiz. Zer egin dezaket?

- Iraunkortasunari buruzko proiektu espezifikoak indartzea ingurumenari buruzko akordio aldeaniz-tunak betetzeko.
- Nire jardun-eremuetako ingurumen-arloko lege-esparruaren berri izatea (Ipar eta Hego) eta nire proiektuen formulazioan eta justifikazioan erabiltzea.
- Nire proiektuetan iraunkortasuna zeharkakota-sunez txertatzea.
- Nire proiektuen ingurumen-inpaktua kontuan izatea.
- GGKEen arteko elkartrukerako guneak sortu edo baliatzea zeharkakotasuna eta elkarlana susta-tzeko.
- Administrazio publikoekin beste horrenbeste egitea.
- Ingurumenean espezializatutako aholkularitzak sortzea.
- Iparrean ingurumenaren eta ekologiaren aldeko elkarrekin lankidetzan aritzea.
- Hegoan kontrako alderdiak bilatzea iraunkorta-sunean sentsibilizatuta.

Administrazio publikoa edo bestelako erakunde finantzatzailea naiz. Zer egin dezaket?

- Ingurumenaren dimentsioa behar bezala integratzea zeharkakotasunez nire lege, plan eta programetan.
- Iraunkortasuna arlo sektorialtzat hartzea.
- Garapenerako Laguntza Ofizialean egin dudan gastuaren berri izatea, ingurumenari dagokionez.
- Nire GLOaren aurrekontu-partida bat «ingurumen-lankidetzara» bideratzea.
- Kode eta irizpide egokituak neure egitea proiektuak ingurumen-ikuspegitik begiratuta sailkatzeko.
- Nire deialdi-formularioan iraunkortasun ekologikoa txertatzea.
- Prozesuari begirako baremo, eskakizun-maila edo irizpideak ezartzea zeharkakoa den kasuetan.
- Tokiko erakundeak ingurumenean indartzeko erre-mintak erabiltzea.
- Lankidetzaz-egiteen artean espezializazioa, koordinazioa eta hausnarketa sustatzea, finan-tzatutako ekintzen ebaluazioa egiteko ingurume-naren ikuspegitik begiratuta.
- Finantzatutako proiektuetatik ondorioztatutako jardunbide egokiei buruzko prestakuntza, gidak eta erremintak sortzea.
- Ingurumen-iraunkortasuna azken helburuetan egongo dela bermatzea.
- Gutxienean ingurumen-betekizun jakin batzuk betetzen dituzten proiektuak baino ez onartzea.
- Beste zerbitzu edo administrazio publiko batzue-tako teknikariei aholkularitza eskatzea.



7

Glosarioa

- **Asimilazio-gaitasuna.** Ikus *irteera-araua*.
- **Berotegi-efektuko gasak:** atmosferan karbono dioxidoa, metanoa edo nitrogeno oxidoa egoteak berotze globalari laguntzen dio.
- **Biopirateria:** baliabide biologikoen eta eratorrien kasuan, eta baliabide horiekin loturiko herri indigenen jakintza tradizionalen kasuan, sarbide, erabilera edo aprobetxamendua legez kontrakoa, irregularra eta/edo inekitatiboa izatea, bereziki, jabetza intelektualaren bitartez, horien gaineko eskubide eskusiboak egiteko xedez.
- **Birsorkuntza-gaitasuna.** Ikus *sarrera-araua*.
- **Ekosistemen zerbitzuak:** pertsonen ekosistemetatik lortzen dituzten onurak. Honako hauek sartzen dira: hornidura-zerbitzuak (elikagaiak eta ura), erregulazio-zerbitzuak (uholdeen eta epidemien kontrola), kultura-zerbitzuak (espiritualak edo olgetazkoak) eta funtsezko zerbitzuak (mantenugaiak zikloa, Lurrean bizitza izatea ahalbidetzen duten baldintzak bermatzen dituenak).
- **Elikadura-subiranotasuna:** herriek elikagai osasun-garriak eta kulturalki egokiak —metodo iraunkorren bitartez produzitutakoak— izateko duten eskubidea; nekazaritzako eta elikadurako sistemak definitzeko eskubidea ere barnean hartzen du.
- **Erantzukizun erkide baina bereziak:** Ingurumenari eta Garapenari buruzko Rioko Deklarazioan jasota dagoen printzipio horrek zera adierazten du, herrialde batek zenbaterainoko ekarpena egin dion munduko ingurumen-degradazioari; horren arabera, herrialde garatuak garapen iraunkorren nazioarteko bilaketan dagokien erantzukizuna onartzen dute, gizarteek munduko ingurumenari, teknologiei eta eskura dituzten finantza-baliabideei dagokienez presio egiten dietelako.
- **Erresilientzia:** aldaketa-prozesu batean, sistema batek gorabeherak xurgatu eta berrantolatzeko duen gaitasuna, funtsean, eginkizun, egitura, nortasun eta atzeraelikadura berdinari eutsiz.
- **Garapen garbiaren mekanismoak (GGM):** mekanismo horiek honako printzipio honetan oinarritzen dira: pertsona inbertitzaile batek proiektu bat gauzatu du berotegi-efektuko gasen emisioak murrizten ari den herrialde hartzaile batean —proiektu hori gabe lortuko zatekeen murrizketa gaindituz— eta, trukean, merkatuan sal ditzakeen emisio-kredituak lortzen ditu; aldi berean, kreditu horiek emisioen eskaintza eta eskaria arautuko dute eta CO₂aren murrizketa eraginkorra eragingo dute.
- **Gutxitzea:** gizarte-mugimendua eta, aldi berean, pentsamendu- eta ekintza-korrontea; ezer baino lehen, obus-hitza da eta beste sistema sozioekonomiko batera aldatzeko premia adierazten du, planetaren muga ekologikoei jarraiki.
- **Hego globala:** herrialde pobretu guztiak (gehienbat Hegokoak), eta herrialde industrializatu eta aberastuen artetik baztertu eta marjinaturiko biztanleria (gehienbat Iparrekoak).
- **Ingurumen-errefuxiatua:** Estatu beraren barruan edo nazioarteko mugak gaindituta, ohiko bizilekuaren lurraldetik alde egiten duen edonor, batik bat edo bereziki, ingurumen-inpaktuen eraginez; inpaktuak mailakatuak edo bat-batekoak izan daitezke (Jesús M. Castillo: *Migraciones ambientales. Huyendo de la crisis ecológica en el siglo XXI*, Bartzelona, Virus, 2011). Munduko Bankuaren arabera, urtean 10 bat milioi pertsonak pairatzen dituzte behartutako lekualdatzeak ingurumen-degradazioaren eta ingurumen-hondamendi natural, teknologiko edo belikoen ondorioz.
- **Ingurumen-justizia:** printzipio horrek sarbide-eskubide berdinak onartzen dizkie gizaki guztiei, baita aukera berdin-berdinak ere planetaren ingurumeneko eta kulturako eskaintzaren onurak izateko. Ipar globala: herrialde industrializatu eta aberastu guztiak (gehienbat Iparrekoak), eta herrialde pobretuen artetik elitea (gehienbat Hegokoak).
- **Irteera-araua:** hondakinen emisioek ekosistemen asimilazio-gaitasunaren barruan egon beharko luketete beti.
- **Karga-gaitasuna:** mugarik gabe iraun dezakeen baliabide-kontsumoaren eta hondakin-deskargaren gehieneko tasa, ekosistema nagusien integritate funtzionala eta produktibitatea arian-arian desorekatu gabe.
- **Krisi ekologikoa:** jatorri antropozentrikoko krisi globala, giza espeziearen eta giza gizartearen espazioari

eta ingurumen-orekari eragiten diena eta, aldi berean, bere jarraitutasuna eta biziraupena arriskuan jartzen duena. Elkarren artean erlazionatuta dauden hainbat fenomenoz osatuta dago: berotze globala, biodibertsitate-galera, deforestazioa, desertifikazioa edo baliabide fosilak agortzea.

- **Oinatz ekologikoa:** adierazle horren bitartez norbanako, talde, herrialde edo gizateriaren hondakin-deskargaren eta baliabide-kontsumoaren mailari eusteko beharrezkoa den azalera edo lurraldea kalkulatzen da. Hektarea globaletan edo planetatan neurtzen da.
- **Ondo bizitzea (*sumak kawsay*):** Ekuador, Bolivia eta Peruko mugimendu indigenaren arabera, gizarte iraunkor, ekitatibo eta komunitarioaren paradigma da; gizakien eta naturaren arteko orekan eta elkarrekotasunean oinarritzen da eta, horren arabera, giza espezieak bere jarraitutasuna bermatzen duenean gainerako guztiaren biziraupena ere bermatzen du.
- **Petrolioaren sabaia:** petrolioaren zenit edo gailurra ere esaten zaio; erabilitako baliabide ekonomiko nahiz teknologikoak eta giza baliabideak edozein izanik ere, mundu osoan petrolio-produkzioaren tasarik handiena lortzen den unea adierazten du. Sabai horretatik gora, produkzioa egonkortu egiten da eta, lehenago edo beranduago, jaitsi.
- **REDD+:** Baliko Ekintza Planaren (2007) arabera, deforestazioaren eta baso-degradazioaren ondoriozko emisioak murrizteko programa, baita Hegoeko herrialdeetan dauden basoetako karbono stocka kontserbatu, modu iraunkorrean kudeatu eta hobetzeko ere.
- **Sarrera-araua:** zerbitzu berriztagarrien erauzketa-tasek jatorrizko ekosistemen birsorkuntza-gaitasunaren barruan egon beharko dute beti; zerbitzu berriztaezinen kasuan, aldiz, agortze-tasak zerbitzu alternatiboen garapen-tasen berdina izango dira, teknologiaren eta inbertsioen bitartez.
- **Zor ekologikoa:** Iparrak Hegoarekin duen zor historikoa, hegoko ingurumen-espazioa ustiatzeagatik eta horrek eragindako ondorio ekologiko negatiboengatik. Karbono-zorra, biopirateria,* hondakin-trafikoa eta ingurumen-pasiboak ditu osagai eta herrialde industrializatuetako kontsumoko eta produkzioko ereduen ondorioa da.

